

C DOKUMENTUA

HIRIGINTZA ARAUAK

AURKIBIDEA

1.Kapitulua ORDENANTZAK.....	1
I TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.....	1
1. artikulua.- Aplikazio eremua.....	1
2. artikulua.- Indarrean sartzea eta iraunaldiaren baldintzak.....	1
3. artikulua.- Arau-esparrua.....	1
4. artikulua.- Proiektua osatzen duten dokumentuak eta horien arauzko norainokotasuna.....	3
5. artikulua.- Kontzeptuen terminologia.....	4
II TITULUA: AZTERKETAREN XEDE ESPARRUAN APLIKATU BEHARREKO ERABILERA ERREGIMENA.....	5
6. artikulua.- Hirigintza erabileren sistematizazioa.....	5
7. artikulua.- Hirigintza erabileren ezaugarritzea beren ezarpenaren arautze ondorioetarako.....	5
8. artikulua.- Hirigintza erabileren edukia.....	6
III Titulua: KALIFIKAZIO XEHATUAREN ERREGIMENA.....	15
9. artikulua.- Kalifikazio xehatuaren sistematizazioa.....	15
10. artikulua.- Erabilera xehatuko zonen erabilera eta hirigintza erregimena.....	15
IV TITULUA: BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK.....	33
11. artikulua.- Baldintzatzaile gainjarrien sistematizazioa.....	33
12. artikulua.- Baldintzatzaile gainjarriak dituzten zonetako erabilera eta eraikuntza erregimena.....	33
V TITULUA: ERABILERA BAIMENDUAK AZTERKETA ESPARRUAN EZARTZEKO ERREGIMENA.....	35
13. artikulua.- Erabilera baimenduen ezarpenari dagozkion jarraibide eta araubideak.....	35
14. artikulua.- Ingurumenaren kontserbazioa eta hobekuntzako erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak.....	35
15. artikulua.- Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak.....	36
16. artikulua.- Basogintza erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak.....	38
17. artikulua.- Ehizako erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak:.....	40
18. artikulua.- Arrantzako erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak.....	40
19. artikulua.- Azpiegituretako erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak:.....	41
20. artikulua.- Aisialdiko jardueri dagozkien jarraibide eta araubideak:.....	42
21. artikulua.- Begiratokiei eta behaketa puntuei dagozkien jarraibide eta araubideak:.....	43
22. artikulua.- Nabigazioko erabilerari dagozkion jarraibideak eta araubideak:.....	43
23. artikulua.- Amarralekuetako erabilerari buruzko jarraibide eta araubideak:.....	44
24. artikulua.- Ibilgailu motordunen zirkulazioko erabilerari buruzko jarraibide eta araubideak:.....	44
25. artikulua.- Aterakuntzako jardueri buruzko jarraibide eta araubideak:.....	44
26. artikulua.- Ubidean gauzatzen diren jarduerak eta uraren erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak: ..	45
27. artikulua.- Hiri-hondartzako zerbitzurako ekipamenduei dagozkien jarraibide eta araubideak:.....	46
28. artikulua.- Ondarearen elementuei buruzko jarraibide eta araubideak:.....	46
29. artikulua.- Kutsatutako lurzoruei buruzko jarraibide eta araubideak:.....	46
VI TITULUA: INDARGETZE-EREMUETAKO ERABILERA ARAUAK.....	47
30. artikulua.- Indargetze-eremuak.....	47
31. artikulua.- Indargetze-eremuei dagozkien jarraibideak:.....	47
VII TITULUA: HERRI-ONURAKO IZENDAPENA.....	48
32. artikulua.- Herri-onura eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea.....	48
VIII TITULUA: ZEHAPEN-ARAUAK.....	48
33. artikulua.- Administrazio-baimenaren eta udal lizentziaren beharra.....	48
34. artikulua.- Erantzukizuna.....	48
35. artikulua.- Arau-haustea.....	48
2.Kapitulua HIRIGINTZA FITXAK.....	51
SANTIXO.....	52
BOKALEA.....	55
ARTADI.....	58
BEDUA.....	65
OIKIAKO ERRIBERAK.....	79
SOBURUTZALDEA.....	86

1.Kapitulua ORDENANTZAK

I TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.- Aplikazio eremua.

Hirigintza arau hauek aplikatu beharrekoak izango dira behin oraingo 'Urolaren Itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Berezi' honen xede esparruak eraturiko lurralde guztian indarrean sartzen direnetik.

Aipatu esparrua Plan Bereziko dokumentu honetan bertan definitu eta mugarritzatu da, Zumaiaiko itsasadarra mantentzeko eta kontserbatzeko irizpideak kontuan hartuta, eta erreferentzia nagusia 'Urola Itsasadarra Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2120004 KBE)'-ren mugarritzatzea izanda.

Haren azalerak, Plan Berezi honetarako berariazko neurketaren emaitzaren arabera, 1.603.162 m² ditu, zifra horri beste 483.858 m² gehitu behar zaizkio, indargetze-eremuena.

Haren mugarritzatze grafikoa Proiektu honetako hainbat planotan jasota geratu da, eta, bereziki, '*Kokapena eta Plan Bereziaren jarduera eremua*' 1. planoan.

2. artikulua.- Indarrean sartzea eta iraunaldiaren baldintzak

Hirigintza arau hauek Plan Berezi honen behin betiko onarpenaren hitzarmena argitaratu eta ondorengo egunetik sartuko dira indarrean.

Horiek aginduko dute indargabetuak edo/eta beste batzuek ordeztuak izan arte.

Hirigintza arau hauetako xedapen baten edo batzuen deuseztasunak, baliogabetzeak edo aldaketak ez dio gainerakoen baliozkotasunari eragingo, horietakoren bat, elkarrekiko erlazio edo mendekotasuna dela kausa, aplikaezina izango balitz izan ezik.

3. artikulua.- Arau-esparrua.

Getaria, Zumaia eta Zestoako Arau Subsidiarioetan definituriko lege- eta hirigintza-araubideak, bai eta azterketaren lurralde esparruan eragina duen arloko legegintzak ere, Proiektu hau garatu eta gauzatzeko arau-esparrua eratzen dute.

- Zarautz-Azpeitiako Lurraldearen Zatiko plana.
- EAeko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren 1. Aldaketa.
- EAeko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- EAeko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Kosta Legea.
- Abenduaren 1eko 1471/1989 Errege Dekretua, Legea garatu eta gauzatzeko Araudi Orokorra onartzen duena.
- 1992ko irailaren 18ko 1112/1992 Errege Dekretua, Koste buruzko Legea garatu eta gauzatzeko Araudi Orokorra onartzen duena

- Itsasertzen Babeserako eta Erabilera Jasangarrirako Legea eta Koste- buruzko Legea aldatzen duena, indarrean sartzen denetik.
- Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 2007ko maiatzaren 18ko 638/2007 Errege Dekretua, Itsas Kapitaintzak eta Itsas Barrutiak arautzen dituenak.
- Europako Legebiltzarren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentaraua, Ur-politikaren eremuan jarduketara esparru komunitarioa ezartzen duena.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, Ur Legearen Testu Bateratua.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena [EAEkoa].
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa, indarrean sartzen denetik.
- Europako Legebiltzarren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentaraua, uholde arriskuei buruzko ebaluazioaren buruzkoa.
- 2010ko uztailaren 9ko Errege Dekretua, uholde arriskuei buruzko ebaluazio eta kudeaketari buruzkoa.
- 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Babestekoa.
- 1/2010 Legea, martxoaren 11koa, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzekoa.
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 92/43/EEE Zuzentaraua, Habitata.
- 2011ko urtarrilaren 10eko Europako Batzordearen erabakia zeinaren bitartez Eskualde Biogeografiko Atlantikoko Batasunaren Intereseko Lekuen (BIL) laugarren zerrenda gaurkotua adosten den, Habitata 92/43/EEE Zuzentaruarekin bat etorritik.
- 'ES2120004 Urola Itsasadarra' Kontserbazio Bereziko Eremutzat izendatzeko Dekretua, indarrean sartzen denetik.
- Urtarrilaren 16ko 4/1990 Foru Dekretua, Gipuzkoa Lurralde Historikoko zenbait flora-espezieren babesa finkatzen duena
- 1628/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako zerrenda eta katalogoa arautzen dituenak.
- 2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan *Musteola lutreola* bisoi europarraren (*Linnaeus, 1761*) kudeaketa plana onartzen duena.
- 2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena.
- 198/2000 Dekretua, urriaren 3koa, Itsasoko kirol-arrantzaren arautegia onartzeko dena.
- 41/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, angularren arrantzari buruzkoa, eta 107/2005 Dekretua, maiatzaren 10ekoa, aurreko dekretua aldatzeko buruzkoa.
- 216/1997 Dekretua, urriaren 7koa, EAEko ibaietan arrantza egiteko baimena arautzeko dena.
- EAEko Landa Garapen Iraunkorreko (2007-2013) Programaren 3. Aldaketa, 2010ko martxoaren 2ko Europako Batzordearen C(2010)1228 Erabakiaren bidez onartua.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.

- 515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenak.
- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiena.
- 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, ekainaren 6koa, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzekoa.
- 16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, Lehorreko Garraioen Antolatzeak, eta haren aldaketak.
- 79/1996 Dekretua, apirilaren 16koa, EAEn mendi ibiliak antolatu eta normalizatzeko dena.
- 37/2003 Legea, zaratari buruzkoa.
- 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.
- 2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, EAetik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun sailkatua izendatzeko.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa [EAEkoa].
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, Proiektuen ingurumen inpaktuaren ebaluazioari buruzko testu bateratua onartzekoa.

4. artikulua.- Proiektuaosatzen duten dokumentuak eta horien arauzko norainokotasuna.

Oraingo Plana, 2/2.006 Legearen 72. artikuluan jasotakoen esparruan dagoena, honako dokumentu hauek eratzen dute:

“A. Memoria” dokumentua.

“B. Gauzatzearen Antolaketa eta Kudeaketa Jarraibideen Azterlana” dokumentua.

“C. Hirigintza Arauak” dokumentua.

“D. Dokumentu ekonomikoa” dokumentua.

“E. Informazio eta ordenazio xehatuko planoak” dokumentua.

Proiektu honen arautze-edukia aurreko paragrafoan seinalaturiko dokumentuen multzoak definitzen badu ere, “C. Hirigintza Arauak”, “B. Gauzatzearen Antolaketa eta Kudeaketa Jarraibideen Azterlana” dokumentuak eta “E.2.- Ordenazio xehatuko planoak” atalean espresuki definituriko planoak dira, espezifikoki, hirigintza jarduna arautzeko eta erregulatzeko izaera dutenak, eta, hortaz, haien xedapenetara egokitu beharko da.

Gainerako dokumentuek, funtsean, izaera adierazgarria, erreferentziakoa edo zurigarria dute, hartara, haien edukiaren eta aurretik aipaturikoen artean inolako kontraesanik egonez gero, lehenengo horiek gailenduko dira.

Eskala ezberdinetan eginiko izaera arauemaileko planoen artean hirigintza zehaztapen zehatz baten inguruan desadostasunik antzemango balitz, eskala handiengan eginiko planoetan zehaztutakoa gailenduko da, desadostasuna azken horietako edukien akats material nabari bati zor zaionean izan ezik.

Desadostasuna idatzizko dokumentazioa eta dokumentazio grafikoaren artean gertatzen bada, honako dokumentu hauetan jasotako zehaztapenak izango dira baliodunak eta aplikatu beharrekoak: “E.2.- Antolaketa xehatuko planoak”, “C. Hirigintza Arauak” eta “A. Memoria”, ordena horretan.

5. artikulua.- Kontzeptuen terminologia.

Hirigintza Arau hauetan erabilitako kontzeptuak Zumaiaiko Udal Plangintzako Arau subsidiarioetan finkaturiko jarraibide eta irizpideen eta honako definizioen arabera ulertu eta interpretatuko dira:

Zona: proiektuaren xede den esparruaren banaketa xehatua, berezko ezaugarriak dituen eta erabilera eta zeinari jarduera erregimen berezia egozten baitzaion.

Esku-hartze eremua: proiektuaren objektu den esparruaren lurraldearen banaketa, ezaugarri homogeenak dituen natur balioak edo egoera administratiboari dagokionean, eta zeinaren gain, osoko antolaketa baten esparruan, babesteko eta hobetzeko jarduketak proposatzen diren.

Esku-hartze azpieremua: esku-hartze eremuen banaketa xehatua, zeinaren gain elkarrekin erlazionaturiko jarduketak proposatzen diren; hirigintza fitxa espezifikoetan definituriko zonakatzeko xehatu homogeenoa dute.

II TITULUA: AZTERKETAREN XEDE ESPARRUAN APLIKATU BEHARREKO ERABILERA ERREGIMENA.

6. artikulua.- Hirigintza erabileren sistematizazioa

Sistematizazio hau Zumaiaiko plangintzan dagoeneko badena aintzat hartuta egin da, Plan Bereziak lurralde mailan gehien ukitzen duen udalerrria dela eta, horren zati bat errepikatuz, beharrezko doiketekin, aurrekoaren zehaztapenak, eta izapidetzen den Plan Bereziaren ezaugarri berezietan eta jarraitzen dituen helburuetan izateko arrazoia duen beste zehaztapen osagarri hori, inoiz ere ezeztu gabe. Hala, hurrengo erabilera hauek bereizi eta definitzen dira:

- 1.- Ingurumenaren babeserako erabilerak
- 2.- Aisialdirako erabilerak
- 3.- Baliabide primarioen ustiapeneko erabilerak
- 4.- Azpiegituretako erabilerak
- 5.- Komunitatearen ekipamenduko erabilera
- 6.- Hirugarren sektoreko erabilerak

7. artikulua.- Hirigintza erabileren ezaugarritzea beren ezarpenaren arautze ondorioetarako

Haien ezarpenaren arautzeari dagokionez, hirigintza erabilerak bultzatu, onargarri eta debekatu gisa definitzen dira.

Zona bateko erabilera bultzatutzat jotzen da eremu horretan gailentzen dena edo gailendu behar dena eta bertan garatzen den lehentasunezko helburuaren ikuspegitik ezaugarritzen duena.

Halaber, erabilera jakin baten erabilera asimilatutzat ondorengo artikuluan espresuki hala identifikatzen diren bestelako erabilera horiek hartuko dira, betiere, horien ezarpen-baldintzak eta inguruan garatzen diren erabilerak aipatutako erabileraren antzekoak direnean; hortaz, horien antzeko baldintzetan ezarri ohi dira.

Erabilera bat zona xehatu jakin batean erabilera bultzatutzat edo onargarritzat hartzeak, ez du nahitaez haren baimentzea ekarriko, orokorki, eta erabilera eta eraikuntza erregimenean horretarako jasotzen diren baldintzei eutsi beharko die eta, azken batean, esku-hartze azpieremuen hirigintza fitxari, izan ere, azpieremu bakoitzaren berezitasunek, zona xehatu berean, erabilera berak tratamendu desberdina izatea aholka baitezakete.

Erabilera bat esparru jakin batean erabilera baimendutzat hartzeak, orokorki, esparru horretan bertan haren erabilera asimilatu eta lagungarritzat definitutakoen ezarpena onestea ekarriko du –horiek aurrekoen zerbitzurako erabileratzat ulertuta eta zeintzuen ezarpena zona berean gauzatu behar duen, erabilera nagusiarekin funtzionalki bat eginik-. Lursail-mota eraikigarri desberdinetako erabilera-erregimenaren erregulazioan espresuki aurkakoa adierazten duten erabilera lagungarriak salbuetsiko dira.

Baldintzatzaile gainjarriak, aldiz, antolaketa xehatuko zonetan gainjarriz eragiten dute, horietan jarduera jakinak gara daitezkeen modua mugatuz, kasuan kasuko arrisku motarena arabera. Proiektu honetan,

zona horietan baldintzatzaile gainjarriak dituzten proposaturiko erabilera onargarrien kasuan, beharrezko lizentziak emateko orduan, zuritu beharko da horien ezarpena ez dela lurgaineko eta lurrazpiko uren kalitaterako edota uholdeen kontrolerako mehatxagarria izango.

Era berean, eta Kosteï buruzko Legearen eta garatzen duten Araudien aplikazioari dagokionez, horiek proiektu honetan proposaturiko antolaketa xehatuko zonei gainjarriko zaizkie aplikatu beharreko erabilera erregimenari dagokionez, kontraesanik egoteko kasuan, lurraldearen legegintza erregimena gailenduz. Halaber, itsaertzairen, itsas-lehorreko jabari publikoaren eta babes zortasuneko lerroen adierazpen grafikoetan edozein desadostasunen aurrean mugaketa-planoetako datuak lehenetsiko dira planeamenduaren datuen gainetik.

Horri dagokionez, Itsaso eta Lehorrearen arteko Jabari Publikoaren erabilera 22/1988 Kosteï buruzko Legearen III. tituluan zehaztutakoaren arabera eta, indarrean sartzen denetik, Legea eta Kosteï buruzko Legea aldatzen duen Itsasertzen Babeserako eta Erabilera Jasangarrirako Legearen xedapen aplikagarrien arabera erregulatuko da.

Babeseko zorgunean gauzatuko diren erabilerak Kosteï buruzko legearen 24. eta 25. artikuluetan edo bere Aldaketan zehaztutakoari egokituko zaizkio, zona horretarako erabilera onargarriak jasota geratu beharko direla, Autonomi Erkidegoko agintaritza eskumendunaren onarpenarekin, Kosteï buruzko Legearen Araudia zati batean aldatzen duen 1112/92 Errege Dekretuaren 48.1 eta 49 artikuluetan xedatutakorekin bat etorritz.

Kosta Legearen 27. eta 28. artikuluetan zehaztutako bide-zortasunen eta itsasorako sarbidearen errespetua bermatu beharko da, bai eta 30. artikuluan eraginpeko eremurako seinaturiko baldintzak beteko direla ere.

Kosta Legea indarrean sartu aurretiko lan eta instalazioak, jabari publikoan edo zorgunean kokaturikoak, Kosta legearen laugarren xedapen iragankorrak zehaztutakoaren arabera erregulatuko dira.

Saneamendu sareko instalazioek Kosta Legearen 44.6 artikuluan seinaturiko baldintzak eta haren Araudian bat datozenak bete beharko dituzte.

Era berean, eta 'Urola Itsasadarra' Kontserbazio Bereziko Eremuari (KBE) dagokionez, Plan Berezi honen zehaztapenez gainera, aplikatu beharrekoak izango dira ere: haren Kudeaketa Planeko berariazko erregulazioak eta Europako Batzordearen 92/43/EEE Zuzentarauaren erregimen prebentiboko 6. artikulua.

8. artikulua.- Hirigintza erabileren edukia.

Proiektuaren 6. artikuluan dagoeneko adierazi den moduan, erabileren definizio honek, azterketa esparrua kontuan izanda, Plan Bereziaren xede lurraldearen moduko batean onargarriak izan litezkeen erabilera horiek sistematizatu ditu, beste erabilera batzuk bazterrean utziz, garapenaren xede den zonaren ezaugarriak direla eta, horiek ez baitira inoiz ezarriko¹.

¹ Zumaïako Arau Subsidiarioen Testu Bategineko "Hirigintza erabileren sailkapena eta edukia" 9. artikuluan jasotakoez ari gara.

Plan Berezi honetan dauden eraikinei dagokienean, planak horiek sendotu egiten ditu, kokatzen diren zonetako helburuak asaldatzen ez dituztela ulertzen duelako edo ordenaziotik kanpo uzten dituelako, aipatu helburuen eta haien egotearen artean kontraesan bat dagoela uste izateagatik.

*Ingurumenaren babeserako erabilerak (1)

Honako hauetan banatzen da:

- Kontserbazioko erabilera (1.1)
- Ingurugiroaren hobekuntza (1.2)
- Jarduera zientifiko-kulturalak (1.3)

.- Kontserbazioko erabilerak egungo ezaugarriak eta egoera bere horretan uzteko bultzatutako horiek dira, gizakiak bertan esku-hartu gabe, edo kasurik naturalizatuenetan zientzi edo kultur izaerako esku-hartzeak soilik burutuz, 'Kontserbazio zorrotz' gisa izendatuko direnak (1.1.1); edo egungo erabilerarekin jarraitzea, gizakiak aktiboki parte hartuz garapen sostengarriko dinamika batean gainerako kasuetan, 'Kontserbazio aktibo' (1.1.2) izenpean biltzen direnak.

.- Ingurumenaren hobekuntzako erabilerak (1.2) jatorrizko egoera berreskuratza edo balio natural handiagoko oreka-egoera batzuetara bideratutako eremuetan aplikatuko dira. Hobekuntza hori era desberdinetakoa izan daiteke esleitzen zaien unitateen kasuistika partikularraren arabera.

Oinarrian, enklabeko edo sektoreko berezko landaredi naturala berrezartzean datza, haren garapen propioa ahalbidetuz edo landareztatze zuzenduaren bitartez: basoberritzea eta landaresien garapena, inausketa selektiboak, garbiketa, birsortzeko itxiturak, paisaiaren eta ekologiaren hobekuntza mesedetzeko ezponden birmoldaketa, hidroereitea, hondartzen, dunen, paduren edo hondoen berrezartzea, landaredi erriparioaren edo baso naturalen berrezartzea, espezie inbaditzaileen ezabatzea, gainazaleko drainatze sarearen berrezartzea edo hobekuntza eta lurren mugimenduak edo helburu horiek erdiesteko beste jarduketa mota batzuk.

.- Jarduera zientifiko-kulturalak (1.3) dira ingurunea izaera zientifikoko esperientzia eta ikerketetarako erabiltzen dituztenak, honako hauek onartzen direla: laginak jasotzeko puntuak, fauna eta flora espezieen jarraipena egiteko oinezko sarbidea edo azterketa eta behaketa errazteko ontzien zirkulazioa (1.3.1) edo instalazio ez iraunkorrak eta ikerkuntza errazteko egokituak (1.3.2), behaketa puntuak kasu.

* Aisialdirako erabilerak (2)

Honako hauetan banatzen dira:

- Aisialdi estentsiboa (2.1)
- Aisialdi intentsiboa (2.2)
- Ehiza- eta arrain-ustiapen jarduerak (2.3)

.- Aisialdi estentsiboko erabilerak dira aisia, turismo, inguruneke hezkuntza eta interpretaziora bideratutako erabilera eta gozamina helburu dutenak, jarduera bigunetan oinarrituak, ekipamendu adierazgarririk gabe: zeharkaldia eta paisaia begiratzea; ingurune fisikoan ez dute eragin handirik. Oinezkoak bertan ibiltzea edo zeharkaldia (2.1.1) besterik ez dakarte, eta ez dute inolako azpiegitura edo

egokitzen behar, arreta handiz egin eta paisaia integratuta egon ohi diren obra txikiak ez badira (erreken gaineko pasabideak, bidezidorrak, begiratokiak, eta abar). Eskuarki, erabilera honetatik kanpo uzten dira hala eraikuntza-garapenak nola bide-sarearen instalazioak edo elementuak.

Itsasertzaren kasuan bainua, motorrik gabeko nabigazioa, hondartzea, arrauna, bela arina edo kirol-arrantza moduko uretako jarduerak ere sartzen dira, inolako lanik edo instalaziorik behar ez dutenak eta Kosta Legearekin eta aplikatzekoa den arloko legeriarekin bat datozenak (2.1.2).

.- Aisialdi intentsiboko erabilerak dira aisia, turismo, inguruneke hezkuntza eta interpretaziora zuzendutako erabilera eta gozamina helburu dutenak, mota desberdinetako jolas-jardueretarako lokalizatutako espazio batera egokitzea dakarten aisia edota harrerako ekipamenduetan oinarrituta.

- Jolas eremuak (2.2.1): area hauek mahaiak, eserlekuak, barbakoak, iturriak, komunak, haur-jolasak, paperontziak, edo izari txikiko zerbitzu-eraikinen bat eduki ditzakete.
- Bainua eta uretako jarduerak: ibarreko lursail erantsien egokitzapena jarduera horien praktikatuko. Barruan sartzen da itsasertzaren erabilera intentsitate, arrisku edo errentagarritasun egoeretan, itsasertzeko lursail erantsiak egokituz jardueren praktikatuko. Sartzen dira: bainatzeko eremuen egokitzapena balizatze sistemen bitartez (2.2.2); hondartza sasoiko zerbitzuak: eguzkitakoak, etzaulkiak, sukaldaritza instalazio desmontagarriak (2.2.3); tresna flotagarrien hondartzea, bela arina, surfa edo piragua kasu (2.2.4); ontzi txikien amarratzea (2.2.5), amarratze puntuen mantentzea eta konponketa (2.2.6), motorrik gabeko ontzien nabigazioa (2.2.7); ontzi motordunen nabigazioa (2.2.7); uretako eskia eta uretako motoa (2.2.9).
- Ibilgailu motordunen zirkulazioari loturiko jarduerak. Automobilismoren eta motoziklismoaren praktikari dagozkio, landan zehar edo horretarako egokiturik ez dauden lur eremuetan, nekazaritzako eta basoko ibilgailu baimenduak salbuetsita (2.2.10).
- Motorrik gabeko ibilgailuen zirkulazioari loturiko jarduerak. Landan zeharreko txirrindularitzako praktikari dagozkio, horretarako egokitu gabeko lur eremuetan (2.2.11).

. - Ehiza- eta arrain-ustiapen jarduerak (2.3): Erabilera hauen erregulazioa eta, zehatzago esanda, haien baimentzea, aplikatzekoak diren nazioarteko, estatuko, autonomia- eta foru-legerietatik eratortzen diren xedapenen betetzearen mende egongo da. Hiru mota bereizten dira: kirol-ehiza (2.3.1), zeinari 2/2011 Ehizaren Legea, martxoaren 17koa, eta ehizako denboraldi debekualdi bereziei buruzko a urteroko Foru Aginduak aplikatuko zaizkion; aurrekoaren jarduera lagungarri gisa, ehiza-postuen eraikuntza sartzen da ere (2.3.2); itsasoko kirol-arrantza (2.3.3), zeinari 198/2000 Dekretua, urriaren 3koa, Itsasoko kirol-arrantzaren arautegia onartzeko dena eta, espezifikoki, 41/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, angularen arrantzari buruzkoa, eta 107/2005 Dekretua, maiatzaren 10ekoa, aurreko dekretua aldatzeari buruzkoa aplikatuko baitzaizkio; eta ibaiko kirol-arrantza, zeinari 216/1997 Dekretua, urriaren 7koa, EAEko ibaietan arrantza egiteko baimena arautzeko dena aplikatuko zaion.

*Baliabide primarioen ustiapeneko erabilerak (3)

Xede nagusitzat lurraldearen ustiapen produktiboa duten jarduera guztiek erabilera hauek barneratzen dituzte. Honako kategoria hauek ezartzen dira:

- Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak.
- Basogintzako erabilerak.
- Itsasertzaren ustiapeneko erabilerak.

.- Nekazaritza eta abeltzaintzako erabileren baitan, landa eremuan nahitaez ezarri beharreko Nekazaritzako erabilerak (3.1.) (landare mota guztien laborantza eta ekoizpena baso ustiapena salbuetsita) eta Abeltzaintza eta Abere-ekoizpeneko erabilerak (3.2) (animalia mota guztien hazkuntza eta zaintzari loturiko jarduerak) sartzen dira.

Nekazaritzako erabileretan (3.1.) bi mota bereizten dira:

- Nekazaritzako laborantzako erabilerak (3.1.1), nekazaritzako ustiapenarekin loturiko praktikak biltzen dituztenak eta zeinen azken xedea lursailen laborantza erraztea baita. Begietsitako praktikak dira, beste batzuen artean, hurrengo hauek: lantze iraunkorra edo noizbehinkakoa, luberritzeak, drainatzeak, ureztapenerako ur ateratzea, landare-estalkiaren mantentzea, ongarritze eta emankortzea, fruta-arbolen landaketa, mintegiak, onddoen laborantza, zizare hazkuntza, produktu fitosanitarioen erabilera, etab. Kontzeptu honetan nekazaritzako kanpoko ekintzak sartzen dira.

Nekazaritzako ustiapenaren eraikin lagungarrietako erabilerak (3.1.2), zeintzuen baitan baitaude: nekazaritzako ustiategiari loturiko erakinak, tresnak, lanabesak eta nekazaritzako produktuak gorde eta kontserbatzekoak, ustiategiari atxikitako ibilgailu eta makinak gordetzeko instalazioak, ustiategiari erantsitako etxebizitzak, udal plangintzan jasotako baldintzetan, ostatu turistiko zerbitzuak –landa turismoa² nekazaritzako ustiategian, sail ureztatuzko laborantzarako lanak eta instalazioak, bai eta estalki azpiko instalazioak edo negutegiak.

Nekazaritzako eta Abere-ekoizpeneko erabileretan (3.2), berriz, honako aldaerak bereizten dira:

- Nekazaritza estentsiboko erabilerak (3.2.1.), abereak, nagusiki, eremu irekietan hazten diren ustiategiekin eratzen dituzte, ukuiluratze jarraitua pairatzen ez dutela, hartara, ez dute hondakin organikoak ezabatzeko instalazioak dituzten eraikin itxien beharrik. Sartzen dira ere lurraren prestakuntza, larreak eta bazka laboreak lortzeko, eta artzaintza.

Erabilera horren baitan sartzen dira, bazka laboreen, larreen eta bazkalekuen erabilerarako abeltzaintzako ustiapenari loturiko praktika kulturalak: sastraka kentzea, lurraren goldatzea eta larreko espezieen ereintza, ongarritzeak, fitosanitarioen aplikazioa, uza biltzeak eta eskuzko segatzea edo mekanizatua, siloratzeak, etab.

- Abeltzaintza eta Abere-ekoizpen intentsiboko erabilerak (3.2.1.), mota guztietako animaliak, espazio itxietan, haztera bideratutako ustiategiekin eratutakoak.

Abeltzaintzako ustiategiari loturiko eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak sartzen dira: ukuiluak, jetzitegiak eta esnea kontserbatzeko lokalak, simaurtegiak eta minda-biltegiak, tresnen eta produktuen biltegitratzea eta kontserbazioa, pentsu- eta bazka-siloak, babeslekuak eta bordak, edaskak eta haien biltzeak, ganbelak, instalazio sanitarioak eta erabilerakoak, lehen

² Ustiategi batean Landa turismo jardueraren ezarpena, maiatzaren 28ko, 128/1996 Dekretuak, irailaren 23ko, 210/1997 Dekretuak aldaturikoak erregulatuta dago (edo geroko legeri osagarria).

transformazioko instalazioak barne: gaztagintza, haragizko produktuen elaborazioa, eztiaren eta beste erle-produktu batzuen ontzikiratzea; jarduera osagarrietarako eraikinak eta instalazioak ere barne hartzen ditu: transformazioa eta salmenta zuzena, artisautza lantegiak, landa hipikak.

Horien artean, "Abeltegí" gisa joko dira haien tamaina eta ezaugarriengatik, usainen igorpenagatik eta hondakin kutsagarrien ekoizpenagatik eragozpen esanguratsuak eragiten dituztenak. Helburu horretarako, erabilera mota hauen ezarpenerako Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako Departamentuari txosten lotesle bat eskatuko zaio, lizentzia eskatu baino lehen, bai eta Araudi honen 146. artikuluan zehaztutako baldintza espezifikoaren betetzea ere, eta, gainera, 515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, Abeltzaintzako ustiatzearen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenak, bete beharko dute.

.- Basogintzako erabilerek (3.3) baso-lurzoruen hobekuntza edo ustiapena helburu duten jarduerak biltzen dituzte; baso-lurzorutzat zuhaitz- edo zuhaizka masek okupatutako edo okupatuak izan daitezkeen lursailak joko dira. Egurra eta, baso-masen ustiaren zuzeneko ustiapenaren bitartez, beste produktu batzuk lortzera bideratutako jarduerak sartzen dira, bai eta baso autoktonoa ekosistema integratu gisa begiratzeko eta berrezartzeko jarduerak ere. Ez da artzaintzako jarduerarik sartzen.

Baso erabileren artean, berriz, honako aldaerak bereizten dira:

- Babeserako basogintza erabilera (3.3.1), zuhaitz edo zuhaizka espezieen landaketa edo ereintzari dagozkio, baita dagozkion baso lanei ere, paisaiaren babesa edo babes ekologikoa xede, haren ustiapena barne, helburu horrek baimentzen dituen mugen barruan. Basoaren ustiaren tradizionala sartzen da: egurrak, frutak, zizak eta onddoak.
- Basogintza ekoizleko erabilera (3.3.2). Zuhaitz masen ustiaren ekonomiko eta etengabea. Aldez aurreko hesitze lanak, lantzea, emankortzea, medeapenak, sastrakak eta landare hondarrak kentzea, etab.; baso hegalkinaren gaineko lanak: landaketa, ereintza, birsortze-inausketak, hazien biltzea; baso-masaren kudeaketa eta hobekuntza: produktu fitosanitarioen aplikazioa, inausketak, hobetzeko mozketak, saka-sarea eraikitzea, baso-masaren inbentarioa; saka-aldia edo ateratzea: mozketak, produktuen sailkapena, errepide sareraino arrastatzea, etab. Zuhaitz-masen erabilerara eta ustiapenera bideraturiko jarduerak dira.
- Aurrekoen erabilera lagungarri gisa (3.3.3) honako hauek sartzen dira: basogintza erabilerari loturiko eraikinak; tresnen, makinariaren eta produktuen biltzeak eta kontserbazioa; basoko bideak eta instalazio atxikiak: hesiak, ur-igarobideak; egurra prozesatzeko eta metatzeko parke edo biltzeak; suteak zaintzeko instalazioak.

.- Itsasertzaren ustiapeneko erabileren (3.4) baitan mota horietako baliabideen ustiaren jarduerak biltzen dira, itsasertzari ezinbestean loturikoak eta lurraldearen aldi baterako okupazioa behar dutenak, betiere Kosta Zerbitzuari edo Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendaritzari aurretiko txostena bidalita, kasuan kasu.

Arraintza, itsaski-biltzea eta algen biltzea (3.4.1) sartzen dira; agregakinen eta hondarren aterakuntzako jarduerak (3.4.2); itsasadarraren sakonera organo eskudunak ezarritako baldintzetan mantentzeko dragatzeak (3.4.3); arrain-haztegiak (3.4.4).

*Azpiegituretako erabilerak (4)

Azpiegituretako erabileretan hurrengo kategoria hauek zehazten dira:

- Garraio Bideetako erabilera (4.1).
- Garaje erabilerak (4.2).
- Portuko erabilerak (4.3).
- Landa-bideen erabilera (4.4).
- Aireko lineetarako erabilera (4.5).
- Lurpeko lineetarako erabilera (4.6).
- A motako izaera ez linealeko zerbitzuen Instalazio Teknikoetako erabilera (4.7).
- B motako izaera ez linealeko zerbitzuen Instalazio Teknikoetako erabilera (4.8).
- Hondakin solidoen hondakindegia eta zabortegetako erabilera (4.9).
- Ubideratze eta Kanalizazioetako erabilera (4.10).

.- Garraio Bideetako erabilerak (4.1) Autobideak, Autobiak, Errepideak eta Trenbideak biltzen ditu, haien instalazio osagarriak barne.

Era berean, azpiegituren kategoria honek pertsonen eta ondasunen garraiora bideratutako beste kanal batzuk biltzen ditu, ingurune fisikoaren gainean antzeko inpaktua dutenak.

Erabilera honen erabilera lagungarritzat jotzen dira: kontserbazio eta ustiapen areak, erregaiaren hornikuntzarako estazioak, aparkalekuak eta atsedeen guneak, zerbitzu guneak, sorospen guneak, etab. Kanpoan utziko da, funtsean, eraikuntzen ezarpena, zeintzuek aipatu funtzionaltasun baldintzak baino ez baitituzte bermatuko.

.- Garaje erabilera (4.2) gisa ulertuko da espazio estali eta itxietan gauzatzen den ibilgailuen zaingoa ; garaje kolektiboak GOKA jardueratzat (Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuak) joko dira. Garaje erabileran Erabilera pribatuko garajeak era Erabilera publikoko garajeak aldaerak zehazten dira. Erabilera pribatuko garajetzat hartuko dira (4.2.1) soilik haien titularrek, edo haiek zuzenean baimendutako beste pertsona batzuek, erabiltzen dituztenak, hala jabego pribatukoak nola titulartasun publikokoak emakida erregimenean. Erabilera publikoko garajetzat joko dira (4.2.2) publikoak orokorrean erabiltzeko bideratutakoak, sarbidea librea delarik, hala doan nola ordaintzekoa; erabilera horrek barneratzen ditu, era berean, dagozkion erabilera lagungarriak, komunak, instalazio aretoak eta beste batzuk. Hala ere, kanpoan utziko dira zerbitzuguneak, ibilgailuen garbiketa irabazi asmoekin eta haien konpontze lantegiak.

.- Portuko erabilerak (4.3) itsas komunikazioetako erabilerak biltzen dituzte, soilik amarratze eta desamarratzeari dagokienean. Gainerako erabilera lagungarriak, osagarriak edo asimilatuak (zerbitzu Publikoen ekipamendu erabilerak, Portuko Espazio Libreen erabilerak, Askotariko Hirugarren Sektoreko erabilerak) era xehatuan erregulatzen dira, Zumaiako Kaia 7. SOren Plan Bereziaren bitartez.

.- Landa-bidetzat (4.4) hartzen dira goragoko mailako errepide sarean integratzen ez diren nekazaritzako ustiatagietarako sarbideak, natur ingurunean kokaturiko herriguneen arteko komunikazio-pistak,

eraikuntza eta zolatze baldintza teknikoak zein titulartasuna gorabehera. Erabilera baldintzak Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzeko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailearen irizpideetara egokitu beharko da.

.- Aireko lineetarako erabilerak (4.5) barnean hartzen ditu energia elektrikoaren, telekomunikazioen eta aire bidez egiten diren beste azpiegitura batzuen garraio edo banaketaren multzoa, zeintzuk euskarri isolatuen kokapenaren bitartez eta dagokion sareak funtziona dezan beharrezkoak diren instalazio txikien bidez egiten baitira.

.- Lurrazpiko lineen erabilerak (4.6) barnean hartzen ditu energiaren, gasaren, petrolioaren eta eratorritako produktuen, uraren, saneamenduaren, telekomunikazioen eta beste azpiegitura batzuen garraio edo banaketa sareen multzoa, bai eta haien instalazio osagarriak, lur azpitik egiten direnak.

.- A motako izaera ez linealeko zerbitzuen Instalazio Teknikoetako erabilerak (4.7) azalera handiak okupatzen dituzten instalazioen multzo zabala barne hartzen du: aire zabalean dauden ibilgailuen aparkalekuak, edateko uren araztegiak eta ura tratatzeko plantak, urtegiak edo ur-biltegi handiak, elektrizitate indarretxeak, biomasatik energia sortzeko plantak, 100 m² baino azalera handiagoko estazio eraldatzaileak, gas-harpen edo ekoizpen indarretxeak, portuko azpiegiturak, planta araztegiak eta hondakin solidoak tratatzekoak, eta ingurune fisikoaren gainean antzeko inpaktua duen beste edozein herri-onurako instalazio.

.- B motako izaera ez linealeko zerbitzuen Instalazio Teknikoen erabileren artean (4.8), bi mota bereizi dira:

- Irismen bertikaleko zerbitzuen Instalazio Teknikoak (4.8.1), besteak beste: dorreak, antenak eta irrati, telebista eta satellite bidezko komunikaziorako Baso ekoizleko erabilera; itsasargiak, irrati-itsasargiak eta antzeko inpaktuko komunikaziorako beste instalazio batzuk.
- Hiri-izaerako eta izari txikiagoko sarbideak (4.8.2), besteak beste: arrapalak, eskailerak, eta abar.

.- Hondakin solidoen hondakindegia eta zabortegetako erabilera (4.9) hiri-hondakin edo industri hondakin solidoak botatzeko bideratutako lekuei dagokie. Hondakin solidoak tratatzeko plantak eta dagozkien erabilera lagungarriak ere biltzen ditu.

Mota guztietako banaketa sareak –ura, saneamendua, energia elektrikoa, telefonia, gasa eta beste batzuk- ur-hornikuntzarako edo hondakin urak eramateko ponpatze estazioak, energia eraldatzeko guneak, etab., Oinarritzko Zerbitzuko erabileratzat hartutakoak, Erabilera Zona guztietan baimenduko dira, udal eta arloko agintaritzak eskumendunek berariazko baimen baten bidez horrela xedatzen dutenean, behin horien inpaktua definituta eta horiek kokatzeko beste aukerarik ez dagoenean; nolanahi ere, ‘Babes Bereziko’ zonak saihestuko dira.

*Komunitate-ekipamenduko erabilerak (5)

Komunitate-ekipamenduko erabilerek erakunde publiko edo pribatuek gauzatzen dituzten biztanleriarentzako zerbitzu-jarduerek biltzen dituzte. Horren harira, Udalak erakunde pribatu batek egiten duen jarduera jakin bat Komunitate-ekipamendu gisa kalifikatzea aukeratu ahal izango du, biztanleria osoarekiko Oinarritzko Zerbitzu Erabilera izaera balioetsita. Osterantzean, jarduera Hirugarren sektoreko erabilera moduan sailkatuko da.

Ulertzen da aipatu eraikin eta instalazioak, haien izaera eta ezaugarriengatik, nahitaez, Plan Bereziaren esparruan kokatzeko beharra duten zerbitzuak ematera bideratuta daudela, beti ere, aldez aurretik, herri-onurakotzat edo gizartearen interesekotzat jo direnean.

Honako Komunitate-ekipamenduko erabilera kategoriak ezartzen dira:

- Hondartza Zerbitzuko Ekipamenduetako erabilerak (5.1)
- Ekipamendu sozio-kulturaleko erabilera (5.2).
- Irakaskuntza ekipamenduko erabilera (5.3).
- Kirol ekipamenduko erabilera (5.4).
- Askotariko ekipamenduko erabilera (5.5)

.- Hondartza Zerbitzuko Ekipamenduetako erabilerak (5.1) itsaso eta lehorren arteko jabari publikoari loturiko komunitate-ekipamendu publiko ala pribatuetarako eraikinak eta instalazioak biltzen ditu. Ulertzen da aipatu eraikinak eta instalazioak, haien izaera eta ezaugarriengatik, nahitaez, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoan kokatzeko beharra duten zerbitzuak ematera bideratuta daudela, beti ere, aldez aurretik, herri-onurakotzat edo gizartearen interesekotzat jo direnean. Eskuarki, hondartzen edo jolas-eremuen zerbitzurako ekipamenduak dira, besteak beste: salbamendurako instalazioak, ontzietarako gordelekuak, dutxak, komunak, etab.

.- Ekipamendu sozio-kulturaleko erabilerak (5.2) kultura, ingurumena eta artea sustatu eta jendarteratzeko jarduerak biltzen ditu, hala nola ekomuseoetan, harrera eta informazio zentroetan, interpretazio zentroetan, jarduera zientifikoetarako instalazio eta antzekoetan gauzatzen direnak.

.- Irakaskuntza ekipamenduko erabilerak (5.3) hezkuntza mota guztiak biltzen ditu, ofizialki eskola-lantegi gisa sailkatutakoak edo ez sailkatutakoak, hala titulartasun publikoko nola pribatukoak, bai eta dagozkien erabilera lagungarriak ere.

.- Kirol ekipamenduko erabilerak (5.4) kirol praktika eta kultura fisikoa oro biltzen ditu, haien irakaskuntza barne, hala eraikinetan nola espresuki horretarako egokitutako espazio libreetan, bai eta dagozkien erabilera erantsiak. Honako mota hauek bereizi dira:

- Golf-zelaiak. Kirol horren praktikarako espresuki egokitutako lursailak, horiekin batera joan daitezkeen eraikinak eta urbanizazioko lanak sartu gabe (5.4.1).
- Aire zabalean dauden kirol instalazioak, futbol zelaiak, igerilekuak, tenis zelaiak, abentura zirkuituak, trial pista, mota guztietako ibilgailuetarako berariazko zirkuituak, etab (5.4.2).

.- Askotariko ekipamenduko erabilerak (5.5) beste mota batzuetako gainerako ekipamenduak biltzen ditu: Herri-administrazio eta erakundeena, Osasun-laguntzakoa, Jolasekoa, Erlajiokoa eta aurreko kategorietan sartzen ez diren Herri-zerbitzuak –bai eta dagozkien erabilera lagungarriak ere-, herri-administrazioako organo ezberdinek garatutakoak, zeintzuk, haien ezaugarri funtzionaletatik eratorritako bateraezintasuna dela eta, ezin baitira beste erabilera batzuetara bideratutako lurzatien ondoan ezarri; hortaz, ezarpenak arauketa espezifikoak izan beharko du kasu bakoitzean.

* Hirugarren sektoreko erabilerak (6)

Hirugarren sektoreko erabileretan ekipamenduetako erabileretarako definitu den kategoria banaketa aplikatuko da. Udalak erakunde pribatu batek egiten duen jarduera jakin bat Komunitate-ekipamendu gisa kalifikatzea aukeratu ahal izango du, biztanleria osoarekiko Oinarrizko Zerbitzu Erabilera izaera balioetsita. Osterantzean, jarduera Hirugarren sektoreko erabilera moduan sailkatuko da.

Hurrengo hirugarren sektoreko erabileren sailkapena ezartzen da:

- Hoteleko erabilera (6.1).
- Jolaseko erabilera (6.2).
- Erabilera sozio-kulturala (6.3).
- Askotariko hirugarren sektoreko erabilerak (6.4).

.- Hoteleko erabileratzat (6.1) joko da irabazi asmoak dituen edozein motatako pertsonen ostatatzea: hotelak, hotel-egoitzak, motelak, ostatuak, apartahotelak, nekazal-turismoko establezimenduak, landetxeak.

Hotelekoaren erabilera erantsi eta lagungarrien artean hotel instalazio bakoitzeko etxebizitza bana hartuko da kontuan; Garaje Erabilera, berriz, kanpoan geratuko da eta kasu bakoitzean, espresuki, baimendu beharko da.

.- Jolaseko erabilerak (6.2) titulartasun pribatuko hainbat aisialdiko komunitate adierazpide biltzen dituzte, haien helburuak direla eta, komunitate-ekipamendutzat jo ezin direnak. Horien artean aurki daitezke: gastronomia eta aisialdiko elkarteak, lokal itxietako kirol instalazioak -gimnasioak, igerilekuak eta beste batzuk-, kanpinak, golf-zelaiak, jolas parkeak eta aire zabalean dauden kirol instalazioak.

- Kanpinak: kategoriaren arabera hornidura eta zerbitzu aldakorrak dituzten instalazioak, zeintzuk ingurunearen aldaketa eta horren gainera presioa baitakarte. Horri dagokionez, Kanpintzat joko da Euskadiko kanpinen antolamenduari buruzko, martxoaren 16ko, 41/1981 Dekretuan eta horren artikulua aldatzen dituen, uztailaren 27ko, 178/1989 Dekretuan ezarritakoa.

.- Erabilera sozio-kulturalak (6.3) kulturaren komunitate-adierazpide ezberdinak biltzen dituzte, hala nola: argazkigintza elkarteak, margolaritza eta eskultura aretoak eta lantegiak, museoak, etab.

.- Askotariko hirugarren sektoreko erabilerak (6.4) gainerako jarduera soziopolitikoak, kulturalak, irakaskuntza jarduerak, osasun-laguntzakoak eta antzekoak biltzen dituzte, titulartasun pribatukoak, haien ezaugarriak direla eta komunitate ekipamendutzat hartu ezin direnak.

III Titulua: KALIFIKAZIO XEHATUAREN ERREGIMENA.

9. artikulua.- Kalifikazio xehatuaren sistematizazioa

- a) Babes berezi zorrotzeko zonak
- b) Babes berezi bateragarriko zonak
- c) Paisaiaren babeserako zonak
- d) Ekosistemen hobekuntzarako zonak
- e) Berreskuratu beharreko zonak
- f) Nekazaritzarako intereseko zonak
- g) Hiri hondartza
- h) Ubide nagusia
- i) Ekipamendu zonak
- j) Komunikazioen sistema orokorra
- k) Portu eremua

Aurreko idazpuruan aurkezturiko erabilera xehakatuko zona motak, erabilera eta eraikuntza erregimen berezia batek bereizten ditu. Erregimen hori izaera orokorrekin ezartzen da baina garrantzitsua da esatea, esku-hartze azpiero bakoitzeko fitxak zehaztuko duela erabilera bakoitzaren erregimen zehatz eta xehatua, eta horrek, azpiero bakoitzaren berezitasun zehatzei eta plan honek erdietsi nahi dituen helburuei erantzungo diela.

Beste alde batetik, ohartarazi behar da erabilera erregimen honen aplikazioa plangintza orokorrean ezarritako baldintzen arabera izan behar dela, erabileren ezarpen baldintzak errespetatu.

Azkenik, adierazi beharra dago egokitzat hartu dela zehaztea zein den, itsasadarraren parte izanik, plangintza orokorrean hiri-lurzor bezala sailkatutako lurraldea, zeinaren erregimen juridiko aplikagarria plangintza orokorrean emanikoa izango den. Ez du plan honek horregatik jardura gomendioen ezarpena saihesten, izan ere, sistema ordenatuaren parte da.

10. artikulua.- Erabilera xehatuko zonen erabilera eta hirigintza erregimena

a. Babes berezi zorrotzeko zonak

Zonalde hauetan babesak lehentasun eta oinarritzko izaera dauka; espazioko ekosistema bereziak edo hauskorrenak hartzen ditu bere baitan (duna sistema, padura eta artadiak), mehatxaturiko fauna eta flora habitata, paisaia-balio adierazgarriak etab., zeintzuek naturalak ez diren eraginengandik babesa behar duten.

Helburu orokorra natura-ingurumena mantendu eta gizakiaren esku-hartzea mugatzea da.

Hurrengo zona hauek sartu dira:

- Hondarra egonkortu arteko hedapen etengabea duten marearteko gunak edo mareaz kanpoko hondartzak (Santixoko duna sistema).

- Padura gunek eta marearteko edo mareaz kanpoko lokatz gunek, landaredunak ala landarerik gabekoak (Santixo, Usurbirillaga, Basazpia).
- Egun artadi kantauiarrak estaltzen dituen eremuak, baita horren potentzialtasuna dutenak (Artadi, Kanteragaina, Dornutegi) ere.

* ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA

Debekatuta dago eraikinak egitea, zerbitzu azpiegituretarako berariazko instalazioak izan ezik. Horretarako, Udalaren baimen berezia beharko da, horiek eremu horietan izango duten eragina eta beste leku batean jartzea ezinezkoa dela balioetsi ondoren.

Onartuak izango dira iraunkorrak ez diren begiratoki edota behaketa puntuen instalazioak, betiere esku-hartze azpideremuen fitxetan espresuki baimenduak badaude. Eraikuntza hauek araudi honetako *Begiratoki eta behaketa puntuei dagozkien jarraibide eta araubideak* 21. artikularen arabera izan beharko dira.

Arau hauen hasierako onarpena egin aurretik zeuden eraikinak eta horietan egiten diren baimendutako erabilera finkatu egingo dira oro har.

Kontsolidatu egiten dira, oro har, Plan Berezia indarrean jartzean lehendik zeuden eraikuntzak, planean espresuki ordenantzatik kanpo daudela esan ezean.

Oro har, ordenaziotik kanpo tokiko geratuko dira ingurumenaren eta paisaiaren osotasuna aldarazten duten gehikuntzak, txabolak edo erantsitako eraikinak, eta indarrean den Zumaiko plangintzako Hirigintza Arauen *Baratzei lotutako eraikinak, txabolak* 149. artikulua esandakoa betetzen ez dutenak, araudi honen *Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerekin loturiko jarraibide eta araubideak* 15. artikuluan jasotako zehaztapenak.

Ordenaziotik kanpo geratuko da, bereziki, egun hareatza erdian kokatzen den eraikuntza, sasoiko tabernaren eta haur jolasen euskarri den zolata barne.

Santixo hondartza eta N-634 errepidearen artean oinezkoentzako pasabide bat ahalbidetzen da, bereziki, '1-02 Santixoko duna' esku-hartze azpideremuari dagokion zatian.

* ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA

Idazpuru honetan adieraziriko erabilera erregimena izaera orokorrarekin ezartzen dira bertan jasoriko berezitasunekin eta azterketa gai diren esku-hartze azpideremu bakoitzeko fitxetan zehazten dira.

- *Erabilera bultzatuak:* 1.1.1. Babes berezi zorrotza

1.2. Ingurumenaren hobekuntza.

1.3.1. Instalaziorik gabeko jarduera zientifiko-kulturalak.

- *Baimendutako erabilerak:* 1.1.2. Kontserbazio aktiboa.

1.3.2. Instalazio iraunkorrak ez dituzten jarduera zientifiko-kulturalak, betiere esku-hartze azpideremu bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.1.1. Zeharkaldia, hirigintza fitxetan ezarritako baldintzen arabera.

2.2.1. Jolas eremuak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.5. Ontzi txikien amarratzea, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.6. Amarratze puntuen mantentzea eta konponketa, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.11. Motorrik gabeko ibilgailuen nabigazioa, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

3.3.1. Babeserako basogintza erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

4.5. Aireko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.6. Lurpeko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.8. B motako izaera ez linealeko zerbitzuen Instalazio Teknikoetako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

5.2. Ekipamendu sozio-kulturaleko erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

- *Debekaturiko erabilerak:* Beste guztiak.

b. Babes berezi bateragarriko zonak

Natura- edota kultur interesa duten zonak, ingurumen sistema sentikorak hartzen dituztenak, baliabide natural eskasekoak edota ikusizko hauskortasun handikoak zein Babes Zorrotz Bereziko eremuekin mugakideak izateagatik, haien babesa ziurtatuko duten neurriak behar dituzten guneak dira.

Xede nagusia, eremu osoko ezaugarrien babesa ziurtatzeaz gain, galdutakoak berreskuratu eta hedatzea da, baita ikerketa zientifikoa, ingurugiro hezkuntza eta aisialdirako jarduerak erraztea ere, baliabide naturalen ustiapena (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza) natura ingurunearen babesarekin bateragarria eginez. Unitate horien paisaia-balioa edo balio ekologikoa lehentasunezko gaia da baliabideen ustiapenari dagokionean.

Ondorengoak dira:

- Baso naturalen babeserako eta haien hedapen potentzialerako guneak, leku malkartsuetan eta higadura handiko guneetan (Sanmigelbaso, Basustagaina).

- Paisaia-hauskortasun handiko gunetan edo, leku garaietan ez egon arren, babes bereziko eremuen barruan dauden nekazaritzarako lursailak (Landarte).

* ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA

Debekatuta dago, oro har, eraikinak egitea, zerbitzu azpiegituretarako berariazko instalazioak izan ezik. Horretarako, Udalaren baimen espresa beharko da, horiek eremu horietan izango duten eragina eta beste leku batean jartzea ezinezkoa dela balioetsi ondoren.

Oro har, onartuak izango dira iraunkorrak ez diren begiratoki edota behaketa puntuen instalazioak, betiere esku-hartze azpieremuen fitxetan espresuki baimenduak badaude. Eraikuntza hauek araudi honetako *Begiratoki eta behaketa puntuei dagozkien jarraibide eta araubideak* 21. artikulua araberakoak izan beharko dira.

Kontsolidatu egiten dira, oro har, Plan Berezia indarrean jartzean lehendik zeuden eraikuntzak, planean espresuki ordenaziotik kanpo daudela esan ezean.

Oro har, ordenaziotik kanpo tokiko geratuko dira ingurumenaren eta paisaiaren osotasuna aldarazten duten gehikuntzak, txabolak edo erantsitako eraikinak, eta indarrean den Zumaiko plangintzako Hirigintza Arauen *Baratzei lotutako eraikinak, txabolak* 149. artikulua esandakoa betetzen ez dutenak, araudi honen *Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerekin loturiko jarraibide eta araubideak* 15. artikuluan jasotako zehaztapenak.

Ordenaziotik kanpo geratzen dira, bereziki, 4-05 'Sanmigelbaso' azpieremuan kokaturiko ehiza-postuak.

* ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA

Idazpuru honetan adieraziriko erabilera erregimena izaera orokorrarekin ezartzen da bertan jasoriko berezitasunekin eta azterketaren xede diren esku-hartze azpieremu bakoitzeko fitxetan zehazten da.

- *Erabilera bultzatuak:* 1.1.1. Babes berezi zorrotza

1.2. Ingurumenaren hobekuntza.

1.3.1. Instalaziorik gabeko jarduera zientifiko-kulturalak.

3.3.1. Babeserako basogintza erabilera.

- *Baimendutako erabilerak:* 1.1.1. Babes berezi zorrotza

1.3.2. Instalazio iraunkorrak ez dituzten jarduera zientifiko-kulturalak, betiere esku-hartze azpieremu bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.1.1. Zeharkaldia.

2.2.1. Jolas eremuak, betiere esku-hartze azpieremu bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.11. Motorrik gabeko ibilgailuen zirkulazioa, betiere esku-hartze azpieremu bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz,

debekatutzat hartuko da.

3.1.1. Nekazaritzako laborantzako erabilerak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

3.2.1. Nekazaritza estentsiboko erabilerak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

3.3.2. Basogintza ekoizleko erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

4.2.1. Erabilera pribatuko garaje erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

4.5. Aireko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.6. Lurpeko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.8. B motako izaera ez linealeko zerbitzuen Instalazio Teknikoetako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

5.2. Ekipamendu sozio-kulturaleko erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

6.1. Hirugarren sektoreko hoteleko erabilera.

- *Debekaturiko erabilerak:* Beste guztiak

c. Paisaiaren babeserako zonak

Paisaia-haaskortasun handia izanik babes bereziko eremuetan ez dauden gune garaiak dira, inguruko eremu zabaletatik ikusgai diren gune garaiak, batez ere eguneroko pasealekueetatik ikusten direnak.

Helburu nagusia paisaiaren kalitatea mantentzea da, eta, ahal den neurrian, hobetzea, paisaia eragin negatiboa izan ditzaketen elementuak saihestea, landa ezaugarriak hirigintza garapenetik babestea eta aurretiko eragin negatiboak zuzentzea edo arintzea.

Azpi eremu honetan sartzen dira:

- Gune garaietan dauden babestutako paisaia guneak. Ikusizko haaskortasun eta haaskortasun eszenografiko handiko eremuak (Artadi, Basustagaina, Torre).

* ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA

Debekatuta dago eraikinak egitea, zerbitzu azpiegituretarako berariazko instalazioak izan ezik. Horretarako, Udalaren baimen berezia beharko da, horiek eremu horietan izango duten eragina eta beste leku batean jartzea ezinezkoa dela balioetsi ondoren.

Onartuak izango dira iraunkorrak ez diren begiratoki edota behaketa puntuen instalazioak, betiere esku-hartze azpieremuen fitxetan espresuki baimenduak badaude. Eraikuntza hauek araudi honetako *Begiratoki eta behaketa puntuei dagozkien jarraibide eta araubideak* 21. artikularen arabera izan beharko dira.

Kontsolidatu egiten dira, oro har, Plan Berezia indarrean jartzean lehendik zeuden eraikuntzak, planean espresuki ordenantzatik kanpo daudela esan ezean.

Oro har, ordenaziotik kanpo tokiko geratuko dira ingurumenaren eta paisaiaren osotasuna aldarazten duten gehikuntzak, txabolak edo erantsitako eraikinak, eta indarrean den Zumaiko plangintzako Hirigintza Arauen *Baratzei lotutako eraikinak, txabolak* 149. artikulua esandakoa betetzen ez dutenak, araudi honen *Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerekin loturiko jarraibide eta araubideak* 15. artikuluan jasotako zehaztapenak.

Ordenaziotik kanpo geratzen dira, orokorrean, zona xehatu hauetan kokatzen diren ehiza-postuak.

* ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA

Idazpuru honetan adieraziriko erabilera erregimena izaera orokorrarekin ezartzen da, bertan jasoriko berezitasunekin eta azterketaren xede diren esku-hartze azpieremu bakoitzeko fitxetan zehazten da.

- *Erabilera bultzatuak:* 1.1.2. Kontserbazio aktiboa.

1.2. Ingurugiroaren hobekuntza.

- *Baimendutako erabilerak:* 1.3.1. Instalaziorik gabeko jarduera zientifiko-kulturalak.

1.3.2. Instalazio iraunkorrak ez dituzten jarduera zientifiko-kulturalak, betiere esku-hartze azpieremu bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.1.1. Zeharkaldia.

2.2.1. Jolas eremuak.

2.2.11. Motorrik gabeko ibilgailuen zirkulazioa, betiere esku-hartze azpieremu bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

3.1.1 Nekazaritzako laborantzako erabilerak

3.2.1. Nekazaritza estentsiboko erabilerak, betiere esku-hartze azpieremu bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

3.3.1. Babeserako basogintza erabilera

4.2.1. Erabilera pribatuko garaje erabilera, betiere esku-hartze azpierrezu bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

4.6. Lurpeko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.8.2 Hiri-izaerako eta izari txikiko sarbideak

- *Debekaturiko erabilerak*: 4.8.1 Dorreak, antenak eta estazio igorle/hartzaileak, egun daudenak kontsolidatutzat joko dira, espresuki ordenazioz kanpo daudela esan ezean.

. Beste guztiak

d. Ekosistemak hobetzeko zonak.

Garrantzi handiko paisaia-balio edo potentzial ekologiko eta natural duten guneak izan arren, eta gizakiaren eraginez hainbat eratako eta mailatako eraldaketak jaso badituzte ere, hasierako egoerara itzultzeko gaitasuna duten guneak dira. Barnealdean edo balore ekologiko handiagoko eremuen alboan egoteagatik, onuragarritzat jotzen da natura kalitate handiagoko ekosistemara eboluzionatzea.

Helburu nagusia lehengoratze lanak gauzatzea da, intereseko ekosistema funtzionalak berreskuratzera bideraturiko hainbat motako jarduketan bitartez.

Hurrengo zonaldeak dira:

- Nekazaritza eta basogintzarako egun erabiltzen diren zonak (baratzeak, ur-bazter baso-sartzeak), non gerora padura edo hatzaldi/lizardi ekosistemak lehengoratzea proposatzen den. Oraindik ohiko jarduerak burutzen diren nekazaritza lursailetan antolakuntza irizpidea jarduerok baimentzea izango da, irizpide nagusiaren baldintzekin bat datozen bitartean (Basadizar, Beduako uhartea, Mantzisorreko uhartea).
- EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak izendatutako 'Lehentasunezko Natura Intereseko Guneak', hau da, ibaiertzeko eta erreka ertzeko babes guneak. Horietan, ibaiertzeko basoa berrezartzeko edota mantentzeko lanak lehenetsiko dira, ibaiaren ibilbide guztian (Bedua eremutik gorako Urolako erriberak) landaretza naturaleko lerro jarraitua hedatzeko asmoz .

* ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA

Debekatuta dago, oro har, eraikinak egitea, natura-ingurumenaren babesa eta kontserbazioarekin loturiko berariazko instalazio eta eraikinak izan ezik.

Kontsolidatu egiten dira, oro har, Plan Berezia indarrean jartzean lehendik zeuden eraikuntzak, planean espresuki ordenantzatik kanpo daudela esan ezean.

Oro har, ordenaziotik kanpo tokiko geratuko dira ingurumenaren eta paisaiaren osotasuna aldarazten duten gehikuntzak, txabolak edo erantsitako eraikinak, eta indarrean den Zumaiaiko plangintzako Hirigintza Arauen *Baratzei lotutako eraikinak, txabolak* 149. artikulua esandakoa betetzen ez dutenak, araudi honen *Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerekin loturiko jarraibide eta araubideak* 15. artikuluan jasotako zehaztapenak.

Ordenaziotik kanpo geratzen dira, bereziki, Basadizar 4-01 azpieroan kokaturiko eraikuntza, txabola eta erantsiriko eraikinak.

*** ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA**

Idazpuru honetan adieraziriko erabilera erregimena izaera orokorrekin ezartzen da, bertan jasoriko berezitasunekin eta azterketaren xede diren esku-hartze azpiero bakoitzeko fitxetan zehazten da.

- *Erabilera bultzatuak:* 1.2. Ingurumenaren hobekuntza.

- *Baimendutako erabilerak:* 1.1.2. Kontserbazio aktiboa.

1.3.1. Instalaziorik gabeko jardura zientifiko-kulturalak.

1.3.2. Instalazio iraunkorrak ez dituzten jardura zientifiko-kulturalak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.1.1. Zeharkaldia.

2.1.2. Instalaziorik behar ez duten uretako jarduerak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.1. Jolas eremuak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.11. Motorrik gabeko ibilgailuen zirkulazioa, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.3.3. Itsasoko kirol-arrantza, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.3.4. Ibaiko kirol-arrantza, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

3.1.1. Nekazaritzako laborantzako erabilerak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da..

3.3.1. Babeserako basogintza erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

4.1. Garraio Bideen erabilerak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

4.5. Aireko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.6. Lurpeko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.8.2 Hiri-izaerako eta izari txikiko sarbideak

- *Debekaturiko erabilerak:* . Beste guztiak

e. Berreskuratu beharreko eremu andeatuak

Giza jarduerak eraldatutako gunek dira, ingurumenean edo paisaian aurreko kasuan baino aldaketa handiagoak jasan dituztenak. Ingurumena eta paisaia eraldatutako eremuak eta marearteko guneeetan sortutako betetze eremuak sartzen dira barne, horiek guztiek, Kontserbazio Bereziko Eremuaren inguruan egoteagatik, berreskuratzeko beharra dute eta.

Irizpide nagusiak ingurumena berreskuratzea behar du, kokatuta dauden eremuaren ingurumena berrezartzera eta babes berezikoak diren gune mugakideetan integrazioa ahalbidetzera zuzenduta.

Honako zonalde hauek dira:

- andeatutako zonak (betelanak, nekazaritza erabilera marjinala), padurako berezko ekosistemak lehengoratzeko bideratuak. Gorostiagako betelanaren kasuan ('Soroberriak') lehengoratzeko era loteslean ezarria da urriaren 30eko 231/2012 Dekretuan, hau da, EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren lehenengo aldaketaren onarpenean.
- uberka ondoko andeatutako zonak, ikusizko eta eszenografia hauskortasun handikoak, (Floresko ontziraleku zaharreen eta Zubiberriako lursailean).

* ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA

Oro har, debekatuta dago eraikinak egitea, natura-ingurumenaren babesa eta kontserbazioarekin loturiko berariazko instalazio eta eraikinak izan ezik.

Kontsolidatu egiten dira, oro har, Plan Berezia indarrean jartzean lehendik zeuden eraikuntzak, planean espresuki ordenantzatik kanpo daudela esan ezean.

Oro har, ordenaziotik kanpo tokiko geratuko dira ingurumenaren eta paisaiaren osotasuna aldarazten duten gehikuntzak, txabolak edo erantsitako eraikinak, eta indarrean den Zumaiaiko plangintzako Hirigintza Arauen *Baratzei lotutako eraikinak, txabolak* 149. artikulua esandakoa betetzen ez dutenak, araudi honen *Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerekin loturiko jarraibide eta araubideak* 15. artikuluan jasotako zehaztapenak.

Ordenaziotik kanpo geratzen da, bereziki, eskuineko ibaiertzean kokatuta dagoen bertan behera utzitako eraikuntza, 3-03 'Floresko ontziralekua' azpideremua, ontziraleku gisa erabili izan zena. Eraikuntzarako sarrera arrapalak baino ez dira kontsolidatzen.

* ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA

Idazpuru honetan adieraziriko erabilera erregimena izaera orokorrarekin ezartzen da, bertan jasoriko berezitasunekin eta azterketaren xede diren esku-hartze azpideremu bakoitzeko fitxetan zehazten da.

- *Erabilera bultzatuak:* 1.2. Ingurumenaren hobekuntza.

- *Baimendutako erabilerak:* 1.1.2. Kontserbazio aktiboa.

1.3.1. Instalaziorik gabeko jarduera zientifiko-kulturalak.

1.3.2. Instalazio iraunkorrak ez dituzten jarduera zientifiko-kulturalak, betiere esku-hartze azpideremu bakoitzaren fitxek espresuki onarturik.

Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.1.1. Zeharkaldia, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.1.2. Instalaziorik behar ez duten uretako jarduerak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.1. Jolas eremuak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.4. Tresna flotagarrien hondartzea (piraguak), betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.5. Ontzi txikien amarratzea, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.3.3. Itsasoko kirol-arrantza, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

3.2.1. Abeltzaintza eta abere-ekoizpen intentsiboko erabilerak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

3.3.1. Babeserako basogintza erabilera

4.5. Aireko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.6. Lurpeko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.8.2 Hiri-izaerako eta entitate txiki sarrerak

5.2. Ekipamendu sozio-kulturaleko erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

- *Debekaturiko erabilerak:* . Beste guztiak

f. Nekazaritzarako intereseko zonak

Hauen baitan nekazaritzarako ahalmenik handiena duten lursailak eta gaur egun nekazaritza jardueretarako erabiliak direnak sartzen dira. Kokaleku topografiko onuragarrietan egoteagatik eta haien ezaugarri fisiko-kimiko, emankortasun, bai eta erabilgarritasun zein irigarritasunagatik nabarmentzen dira. Nekazaritza jardueraren mugarik azpimarragarriena uholde arriskua da, handia edo oso handia, lursail horien kasuan.

Jomuga orokorra nekazaritza produkzioarako lur baliabide naturala mantentzea da, ingurunearen ingurumen balioekin bateragarria izanik, bai eta zenbait ongari eta produktu kimikoen erabilera kontrolatzea ere, estuarioa eta bertako lurak kutsa ez ditzaten.

Arreta berezia jarri beharko da balio agrologiko handiko lurzorua okupatzen duten eraikuntza prozesuak eta azpiegiturak kontrolatzeko, baita nekazaritza zonak zatikatu eta gune isolatuak bihurtzen dituzten prozesuak kontrolatzeko ere, bertan burutzen diren jardueretarako ondorio kaltegarriak ekarri ohi dituzte eta.

Hurrengo zonaldeak barne hartzen ditu:

- Oikia, Dornutegi, Ubitarte eta Soburutzaldea ibarretako ibai ondoko lurzoruak. Ibai-sistemearekin harreman estua duten eremuak dira eta, kasu gehienetan, %10tik gorako urteko uholde-maiztasuna dute ('Hamar urteko itzulera-aldiko uholdeek hartutako guneak'). Gainerako guneek uholde arrisku txikiagoa dute, nahiz eta ehun eta bostehun urteko itzulera-aldiko uholdeek zati batzuk eragin ditzaketen (uholderik izateko probabilitatea urtean %1 eta %10 bitartekoa edo %1 baino gutxiagokoa, hurrenez hurren).

* ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA

Oro har, debekatuta dago eraikinak egitea, natura-ingurumenaren babesa eta kontserbazioarekin loturiko berariazko instalazio eta eraikinak izan ezik.

Kontsolidatu egiten dira, oro har, Plan Berezia indarrean jartzean lehendik zeuden eraikuntzak, planean espresuki ordenantzatik kanpo daudela esan ezean.

Oro har, eraikuntza erregimena Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaierak eta Erreka ertzak Antolatzen LAPen 1. Aldaketaren Araudiko 'Lurzoruaren erabilera irizpideak, erakusten duen uholde arriskuaren arabera' (E.1) idazpuruan ezarritakoak gidatuko du.

Hamar urteko uholdeak izan ditzaketen lurralde tarteetan, bereziki, *"alde batera utzi beharko da edozein hirigintza-erabilera, ibaiaren ekosistemaren eta haren gaitasun hidraulikoaren mantentzeari eta erabilerari hertsiki lotua ez badago. Ibaieretako jarduerak, erasaten zaion ibai-zatiaren egoera ekologiko ona lortu edo mantentzea bideratuta egongo dira."* [lurzorua uholdeak izateko arrisku mailaren arabera erabiltzeko araubidea. Eusko Jaurlaritzako Uraren Agentzia].

Oro har, ordenaziotik kanpo tokiko geratuko dira ingurumenaren eta paisaiaren osotasuna aldarazten duten gehikuntzak, txabolak edo erantsitako eraikinak, eta indarrean den Zumaia-ko plangintzako Hirigintza Arauen *Baratzei lotutako eraikinak, txabolak* 149. artikulua esandakoa betetzen ez dutenak, araudi honen *Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerarekin loturiko jarraibide eta araubideak* 15. artikuluan jasotako zehaztapenak.

* ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA

Idazpuru honetan adieraziriko erabilera erregimena izaera orokorrarekin ezartzen da, bertan jasoriko berezitasunekin eta azterketaren xede diren esku-hartze azpiero bakoitzeko fitxetan zehazten da.

- *Erabilera bultzatuak:*
 - 3.1.1 Nekazaritzako laborantzako erabilerak
 - 3.2.1. Abeltzaintza estentsiboko erabilerak.
 - 1.1.2. Kontserbazio aktiboa.
 - 1.2. Ingurumenaren hobekuntza.
- *Baimendutako erabilerak:*
 - 1.3.1. Instalaziorik gabeko jarduera zientifiko-kulturalak.

1.3.2. Instalazio iraunkorrak ez dituzten jarduera zientifiko-kulturalak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.1.1. Zeharkaldia.

2.2.11. Motorrik gabeko ibilgailuen zirkulazioa, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.3.4. Ibaiko kirol-arrantza, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

3.1.2. Nekazaritzako ustiapenaren eraikin lagungarrietako erabilerak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

3.3.1. Babeserako basogintza erabilera.

4.1. Garraio Bideen erabilerak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

4.2.1. Erabilera pribatuko garaje erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

4.5. Aireko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.6. Lurpeko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.8.2 Hiri-izaerako eta entitate txikiko sarrerak

- *Debekaturiko erabilerak:* . Beste guztiak.

g. Hiri-hondartza

Ingurumen balio garrantzitsua izanda ere, eremu horietan erabat finkaturik dauden aisialdi jardura intentsiboek antolaketa erabat baldintzatzen dituzten guneak dira. Zumaia hirigunearen inguruan dagoen 'hiri-hondartza' da, bisitari etorrera nabarmena duena, batez ere uda garaian, eta sarbidearen eta oinarritzko zenbait zerbitzuren hobekuntza nabarmen behar dituen.

Hondartzaren antolaketa paisaia-irizpideak ardatz hartuta egin behar da, hots: ingurunearen hobekuntza sustatuz eta zerbitzuen hornikuntzarekin bateragarria eginez; Itsasoko eta Lehorren arteko Jabari Publikoa babestuz eta zainduz, (edozein kasutan, baita mugakideak diren eremuetan ere), haren osotasuna eta erabilera egokiak defendatuz, haren ezaugarriak eta elementu naturalak babestuz eta lanak eta azpiegiturak burutzean sortutako ondorio kaltegarriak gutxituz.

Ondorengo gunea da:

- Erabilera publiko intentsiboa duen marearteko eta mareaz kanpoko hondar eremua (Santxo hiri-hondartza). Eremu horren eta gainerako duna-sistemaren babes bereziko eremuaren arteko muga erabat alda daiteke, hondartza eta duna-sistema bera Orruaga aldera mugitzen ari delako.

* ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA

Oro har, debekatua dago inolako eraikinak egitea.

Onartzen dira, oro har, aldi baterako zerbitzuen (zaintza postuak, kantina) eta instalazioen (dutxak) okupazioak, Kosten 22/88 Legearen III. Tituluak zehazturikoaren arabera, edo Itsasertzen Babeserako eta Erabilera Jasangarrirako Legearen xedapen aplikagarrien arabera, zeinak Koste bidezko Legea aldatzen duen, indarrean sartzen denetik.

* ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA

Idazpuru honetan adieraziriko erabilera erregimena izaera orokorrarekin ezartzen da, bertan jasoriko berezitasunekin eta azterketaren xede diren esku-hartze azpiero bakoitzeko fitxetan zehazten da.

- *Erabilera bultzatuak:*
 - 1.1.2. Kontserbazio aktiboa.
 - 1.2. Ingurumenaren hobekuntza.
 - 2.2.2. Bainatzeko balizaturiko zona.
 - 2.2.3. Hondartza sasoiko zerbitzuak.
- *Baimendutako erabilerak:*
 - 1.3.1. Instalaziorik gabeko jarduera zientifiko-kulturalak.
 - 1.3.2. Instalazio ez iraunkorrak dituzten jarduera zientifiko-kulturalak.
 - 2.1.1. Zeharkaldia.
 - 2.1.2. Inolako instalaziorik behar ez duten uretako jarduerak.
 - 2.2.1. Jolas eremuak.
 - 2.2.4. Tresna flotagarrien hondartzea.
 - 2.2.11. Motorrik gabeko ibilgailuen zirkulazioa.
 - 2.3.3. Itsasoko kirol-arrantza.
 - 3.4.1. Arrantza, itsaski-bilketa eta algen bilketa.
 - 4.5. Aireko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.
 - 4.6. Lurpeko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.
 - 4.8.2 Hiri-izaerako eta izari txikiko sarbideak
 - 5.1. Hondartzetarako zerbitzuen ekipamendua.
- *Debekaturiko erabilerak:* . Beste guztiak.

h. Ubide nagusia

Zubiaundiko oinezkoentzako zubitik Errotagaingo zubiraino, Urolaren itsasadarraren uberka nagusia. Tarte horretan lohiez osatutako intereseko habitatak hauteman dira eta, hartara, babes berezi

zorrotzeko eremu gisa zonakatu da. Usurbirillaga inguruko bigarren mailako ibilguak ere, itsasbeheran sakonera eskasekoak, ibilgu nagusitik kanpo geratu dira eta babes berezi zorrotzeko kategoria eman zaie.

Ondorengo eremuak sartu dira barne:

- Zubiaundi-Errotagaineko tartean itsasadarraren ibilgu nagusiak eratutako mareapeko guneak.

* ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA

Oro har, debekatua dago inolako eraikinak egitea.

* ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA

Idazpuru honetan adieraziriko erabilera erregimena izaera orokorrarekin ezartzen da, bertan jasoriko berezitasunekin eta azterketaren xede diren esku-hartze azpiero bakoitzeko fitxetan zehazten da.

- *Erabilera bultzatuak:*
 - 1.1.2. Kontserbazio aktiboa.
 - 1.2. Ingurumenaren hobekuntza.
 - 1.3.1. Instalaziorik gabeko jardura zientifiko-kulturalak.
- *Baimendutako erabilerak:*
 - 2.1.2. Inolako instalaziorik behar ez duten uretako jarduerak.
 - 2.2.5. Ontzi txikien amarratzea, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.
 - 2.2.6. Amarratze puntuen mantentzea eta konponketa, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.
 - 2.2.7. Motorrik gabeko ontzien nabigazioa.
 - 2.2.8. Ontzi motordunen nabigazioa.
 - 2.3.3. Itsasoko kirol arrantza.
 - 2.3.4. Ibaiko kirol-arrantza.
 - 4.1. Garraio Bideen erabilerak, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.
 - 4.2.1. Erabilera pribatuko garaje erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.
 - 4.4. Landa-bideetako erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.
 - 4.5. Aireko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.6. Lurpeko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.8.2 Hiri-izaerako eta izari txikiko sarbideak

- *Debekaturiko erabilerak:* . Beste guztiak

i. Ekipamenduak

Plan Bereziak landa eremuan eraiki beharreko komunitate-ekipamenduak hartzera xedaturiko eremuak dira. Instalazio horiek inguruko garapenerako beharrezkoak eta, batez ere, herritarren atsedeen eta aisialdirako izango dira.

Helburu nagusia eremu horiek ingurunean sor ditzaketen eragin kaltegarri potentziala gutxitzea da.

Ondorengo eremuak sartu dira barne:

- Lurraren okupazioan eragina duten etorkizuneko azpiegiturak, zerbitzuak eta herri ekipamenduak hartzera xedaturiko gune publikoak. Eremu honetan Santxo hondartzako zerbitzuak, ekipamenduak eta sarbideak sartu dira.
- Egitura edo egiturarik gabeko jabari publiko edo pribatuko guneak, zeintzuetan, arrazoi bereziak direla eta, komunitate ekipamenduak nekazaritzarako lurretan ezarri behar diren. Eremu horretan Beduako hotela kokatzen den herrigunea eta utzitako eraikinak (zementu lantegia eta ontziola) sartu dira, baita J.M korta industria gunerako sarbidearen hobekuntza ahalbidetuko lukeen zubiaren inguruko azalera lerroa ere.

* ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA

Debekatuta dago, oro har, eraikinak egitea, ingurumen naturalaren kontserbazioarekin erlazionaturiko berariazko instalazio eta eraikinak, esku-hartze azpieremuen fitxetan espresuki adieraziriko ekipamendu komunitarioak, eta esku-hartze azpieremuen fitxetan espresuki adieraziriko hondartza zerbitzueterako laguntza instalazioak (biltegi, botika ontzi, garbigela, dutxa, aldagela, kantina) izan ezik.

Onartuak izango dira, oro har, iraunkorrak ez diren begiratoki edota behaketa puntuen instalazioak, betiere esku-hartze azpieremuen fitxetan espresuki baimenduak badaude. Eraikuntza hauek araudi honetako *Begiratoki eta behaketa puntuei dagozkien jarraibide eta araubideak* 21. artikuluen arabera izan beharko dira.

Kontsolidatu egiten dira, oro har, Plan Berezia indarrean jartzean lehendik zeuden eraikuntzak, planean espresuki ordenantzatik kanpo daudela esan ezean.

Oro har, ordenaziotik kanpo tokiko geratuko dira ingurumenaren eta paisaiaren osotasuna aldarazten duten gehikuntzak, txabolak edo erantsitako eraikinak, eta indarrean den Zumaia plangintzako Hirigintza Arauen *Baratzei lotutako eraikinak, txabolak* 149. artikulua esandakoa betetzen ez dutenak, araudi honen *Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerekin loturiko jarraibide eta araubideak* 15. artikuluan jasotako zehaztapenak.

Oro har, Eraikuntza erregimena Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaierak eta Errekaertzak Antolatze LArren 1. Aldaketaren Araudiko 'Lurzoruaren erabilera irizpideak, erakusten duen uholde arriskuaren arabera' (E.1) idazpuruan ezarritakoak gidatuko du.

Hamar urteko uholdeak izan ditzaketen lurralde tarteen bideziki *“alde batera utzi beharko da edozein hirigintza-erabilera, ibaiaren ekosistemaren eta haren gaitasun hidraulikoaren mantenimenduari eta erabilerari hertsiki lotua ez badago. Ibaiertzetako jarduerak, erasaten zaion ibai-zatiaren egoera ekologiko ona lortu edo mantentzera bideratuta egongo dira.”* [lurzorua uholdeak izateko arrisku mailaren arabera erabiltzeko araubidea. Eusko Jaurlaritzako Uraren Agentzia].

Santixo hondartza eta N-634 errepidearen artean oinezkoentzako pasabide bat ahalbidetzen da, bereziki, ‘1-01 Santixoko hondartza’ esku-hartze azpieroemari dagokion zatian.

* ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA

Idazpuru honetan adieraziriko erabilera erregimena izaera orokorrearekin ezartzen da, bertan jasoriko berezitasunekin eta azterketaren xede diren esku-hartze azpieroem bakoitzeko fitxetan zehazten da.

- *Erabilera bultzatuak:* 2.2.1. Jolas eremuak.

5.1. Hondartzei eskainiriko zerbitzuen ekipamendua.

1.1.2. Kontserbazio aktiboa.

1.2. Ingurumenaren hobekuntza.

1.3.1. Instalaziorik gabeko jarduera zientifiko-kulturalak.

- *Baimendutako erabilerak:* 1.2. Ingurumenaren hobekuntza.

1.3.1. Instalaziorik gabeko jarduera zientifiko-kulturalak.

1.3.2. Instalazio ez iraunkorrak dituzten jarduera zientifiko-kulturalak.

2.1.1. Zeharkaldia.

2.1.2. Inolako instalazio gabeko ur jarduerak.

2.2.3. Hondartza sasoi zerbitzuak.

2.2.4. Tresna flotagarrien hondartzea.

2.2.5. Ontzi txikien amarratzea, betiere esku-hartze azpieroem bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.6. Amarratze puntuen mantentzea eta konponketa, betiere esku-hartze azpieroem bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

2.2.11. Motorrik gabeko ibilgailuen zirkulazioa.

2.3.3. Itsasoko kirol-arrantza.

2.3.4. Ibaiko kirol-arrantza.

3.1.1. Nekazaritzako laborantzako erabilerak, betiere esku-hartze azpieroem bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz,

debekatutzat hartuko da.

3.3.1. Babeserako basogintza erabilera, betiere esku-hartze azpiero bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.

4.5. Aireko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.6. Lurpeko lineetarako erabilera, betiere Udalak espresuki onarturik.

4.8.2 Hiri-izaerako eta entitate txikiko sarrerak

5.2. Ekipamendu sozio-kulturaleko erabilera.

5.3. Irakasleen ekipamendua.

6.1. Hirugarren sektoreko hoteleko erabilera.

6.3. Hirugarren sektoreko erabilera sozio-kulturala.

- *Debekaturiko erabilerak:* . Beste guztiak.

j. Komunikazioen Sistema Orokorra

Plan Bereziak nekazaritzarako lurretan ezarri beharreko eta eremura edo inguruko gunetara iritsi ahal izateko oinarritzako azpiegiturak, dagoeneko eraikita daudenak nahiz etorkizunerako proposaturikoak (bideak, errepideak, trenbideak), hartzera xedaturiko eremuak dira.

Helburu nagusia azpiegitura horiek ingurumenean duten eragin kaltegarria gutxitzea da.

Galda daitezkeen legeak ezarritako ingurumen eraginaren gaineko azterketak alde batera utzirik, gune horietan paisaiaren integrazioa zainduko da, bereziki, baita kokatuko den landa eremuetan aldaketa ahalik eta txikiena izan dadin ere.

Ondorengo azpiegiturak sartu dira:

- Udal hiri-plangintza orokorrean ezarritako Komunikazioen Sistema Orokorra: *'Trenbidea'* 12. SO, *'A-8 Autobidea'* 13. SO eta *'N-634'* 14. SO.

*** ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA**

Zumaiaiko Plangintzako Arau Subsidiarioen *'Trenbidea'* 12. SO, *'A-8 Autobidea'* 13. SO eta *'N-634'* 14. SO Sistema Orokorretako hirigintza fitxetan ezarritakoak aginduko du.

*** ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA**

Zumaiaiko Plangintzako Arau Subsidiarioen *'Trenbidea'* 12. SO, *'A-8 Autobidea'* 13. SO eta *'N-634'* 14. SO Sistema Orokorretako hirigintza fitxetan ezarritakoak aginduko du.

k. Portuko eremua

Urola ibaiaren ibilgu nagusia hartzen du baitan, Zubiaundiko oinezkoentzako zubitik ibai ahorraino. EAEko Portu Zuzendaritzak kudeatutako eta *'Kaia' 7. Sistema Orokorrerako Plan Bereziak* antolatutako hiri-lurzorua da.

Esparru honetarako irizpide orokorrak Urolaren bokalearen egoera ekologikoa begiratu edo hobetzean, inguruan aurrera eramaten diren jolas erabilerak bateratzean eta eremua paisaia ikuspuntu batetik hobetzean datza.

Ondorengo eremuak sartu dira barne:

- Hiri-lurzoruan dagoen Urolaren itsasadarraren ubidea.

* ERAIKUNTZA ERREGIMEN OROKORRA

'Kaia' 7. Sistema Orokorrerako Plan Bereziaren ezarritako eraikuntza erregimen orokorrak aginduko du.

* ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA

Erabilera xehatuko guneetan, uberkarekin mugakideak izanda egun Plan Bereziaren parte ez direnetan, *'Kaia' 7. Sistema Orokorrerako Plan Bereziaren* ezarritako erabilera erregimen orokorrak aginduko du.

Ubidearen beraren kasuan, honako erabilera erregimen orokorrak aginduko du:

- *Erabilera bultzatuak:*
 - 1.1.2. Kontserbazio aktiboa.
 - 1.2. Ingurumenaren hobekuntza.
 - 1.3.1. Instalaziorik gabeko jarduera zientifiko-kulturalak.
- *Baimendutako erabilerak:*
 - 2.1.2. Inolako instalaziorik behar ez duten uretako jarduerak.
 - 2.2.2. Bainatzeko zona balizatuak.
 - 2.2.5. Ontzi txikien amarratzea.
 - 2.2.6. Amarratze puntuen mantentzea eta konponketa.
 - 2.2.7. Motorrik gabeko ontzien nabigazioa.
 - 2.2.8. Ontzi motordunen nabigazioa.
 - 3.4.3. Dragatzeak.
 - 4.3. Portuko erabilerak.

IV TITULUA: BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK.

11. artikulua.- Baldintzatzaile gainjarrien sistematizazioa

Plan Bereziak gainjarriko baldintzatzaileak ezartzen ditu, zeintzuek zonakatze xehatuari gainjarritz funtzionatzen duten, kasu bakoitzean dagoen arrisku motaren arabera, zenbait jarduera aurrera eramateko era mugatuz.

Bi baldintzatze gainjarri identifikatu dira:

1. Ur azpian gera daitezkeen eremuak.
2. Higadura izan dezaketen areak.

12. artikulua.- Baldintzatzaile gainjarriak dituzten zonetako erabilera eta eraikuntza erregimena

1. Ur azpian gera daitezkeen eremuak

Haien kokalekua edota euren ezaugarri topografikoen ondorioz, ezohiko uraldietan, Uholdeei aurre hartzeko EAEko Plan Integralean ezarritako itzulera-aldiei dagozkienetan, nolabaiteko uholde-arriskua duten esparruak dira.

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoak³ aintzat hartzen du baldintzatzaile hau, eta horrekin bat dator EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatze Lurraldearen Arloko Planak⁴; hortaz, Plan Bereziak xehaturiko zona bakoitzari, aipatutako bi Plan horiek uholde-arriskuen inguruan ezartzen dituzten xedapen gehigarriak aplikatuko zaizkio.

Plan Berezian aintzat hartu beharko dira, era gaurkotuan eta hori aldatzeko inolako beharrik gabe, erantzukizuna duen erakundeak (Eusko Jaurlaritzaren Uraren Agentzia) egingo duen uholde-arrisku orbanen eguneraketa.

2. Eremu higakorrak

Haien ezaugarri litologikoengatik eta erliebearengatik higadura fenomenoak izateko joera handia duten eremuak dira. Proiektuaren xede-esparruaren kasuan, %50eko malda gainditzten duten mendi-mazelak sartu dira.

Irizpide orokor gisa, zuhaitz eta zuhaixka estalkia mantenduko da, egun egonez gero, edo sartu eta zabaltzeko egingo da, landaredi-estalkia mehatza egoteko kasuan, higadura fenomenoaren aurrean funtsezko babeserako elementu moduan. Baso-masaren egonkortasunik handiena lortze aldera kudeatu beharko dira, higaduraren, sute-arriskuaren edota mendiaren ezaugarri babesgarrietarako beste arrisku batzuen kontrola lortzeko bideratutako basogintzako metodoen erabileraren bitartez.

* ERABILERA ERREGIMEN OROKORRA

³ 399/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa behin betiko onartzen duena.

⁴ 499/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatze Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duena.

Xehatutako zona bakoitzeko erabilera erregimen orokorrak aginduko du, ondorengo zehaztapenekin:

- *Erabilera bultzatuak:*
 - 1.1.1. Babes berezi zorrotza
 - 1.1.2. Kontserbazio aktiboa.
 - 1.2. Ingurugiroaren hobekuntza.
 - 1.3.1. Instalaziorik gabeko jarduera zientifiko-kulturalak.
 - 3.3.1. Babeserako basogintza erabilera
- *Baimendutako erabilerak:* 3.3.2. Basogintza ekoizleko erabilera, betiere erabilera azpi-eremu bakoitzaren fitxek espresuki onarturik. Hala ez balitz, debekatutzat hartuko da.
- *Debekaturiko erabilerak:* . Beste guztiak.

V TITULUA: ERABILERA BAIMENDUAK AZTERKETA ESPARRUAN EZARTZEKO ERREGIMENA

13. artikulua.- Erabilera baimenduen ezarpenari dagozkion jarraibide eta araubideak

Urola Itsasadarra ES2120004 Babes Bereziko Eremuari (KBE) dagokion esparruan, gaur egun duen mugarriztatzean edo etorkizunean hartuko dituenetan, haren Kudeaketa Planaren *Jarraibideak, arauketak eta baterako jarduketak* 1. dokumentuko jarraibideak eta arauketak aplikatu beharko dira.

Plan Bereziaren barruko esparru osoan honako jarraibide eta arauketa hauek izango dira baliodunak:

14. artikulua.- Ingurumenaren kontserbazioko eta hobekuntzako erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak

Ingurumena hobetu edo berreskuratzeko jarduerak esku-hartze azpierrean guztietan baimenduko dira, Plan Berezi honen Ekintza Planeko jarduketak xehatuen artean jaso diren ala ez gorabehera.

Uretako habitatekin zerikusia duten landare-eraketa naturalak kontserbatzea eta hobetzea helburu duten jarduerak sustatuko dira, bai eta habitat horietako florako eta faunako populazioak garatzea helburu dutenak ere.

Estuario-ingurunean, helburu nagusia izango da hareatzekin eta estuarioekin zerikusia duten habitatak erabat kontserba daitezen bultzatzea; beraz, habitat horiekin zerikusia duten landaredi-eta fauna-komunitateak zorrotz babesten direla ziurtatuko da, bai eta haien dinamika hidrauliko bereizgarriari eusten zaiola ere.

Estuario-ingurunearen eta lehorreko ingurunearen arteko ekologia-loturak berebiziko garrantzia du, ekosistemek (ibaikoak eta itsasokoak) bat egiten duten ingurunean. Ekologia-lotura hobea izan dadin, erriberako landaredi-formazio helduak era daitezen bultzatu behar da, eta halaber, faunaren joan-etorria eragozten duten oztopoak kendu behar dira.

Horren haritik, lehentasuna izango du ibarbasoei eusteak eta haiek berreskuratzeko, luzetara zein zeharka; horretarako, erriberako landaredirik ez duten ibaiertzak basoberritu egingo dira eta bertakoak ez diren espezieak dituztenetan jatorrizko landaredia jarriko da, ibai-ibilgu osoan zehar landaredi naturaleko banda jarraitua eratu ahal izan dadin helburu hartuta.

Ibarbasoa berrezartzea beharrezko den tarteetan, ibai-ibarretako berezko tokiko zuhaitz eta zuhaixka espezieak erabiliko dira (haltzak, lizarrak, sahatsak, etab.). Landaketa-modulu heterogeneoak erabiliko dira zuhaitz eta zuhaixka espezieen eraketari dagokionez; landareak irregularki landatuko dira, landare-formazio naturalenak erdiesteko xedez.

Espezie inbaditzaile aloktonoei loturiko bioaniztasunaren galera saiheste aldera, horiek ezabatzeko edo/eta kontrolatzeko jarduerak sustatuko dira, bereziki, kontserbazio helburuak gehien arriskarazi ditzaketen horien kasuan.

Espezie, azpiespezie edo fauna zein flora populazio bat Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartzeak honako debeku hauek izango ditu:

- a) Animalien kasuan, horiek hil, harrapatu, esetsi edo gogaitzeko helburuz egindako baimendu gabeko edozein jarduera egitea. Debeku horretan sartzen dira animalia horien kumeki, kume edo arrautzak, bai eta haien habitataren suntsipena ere, bereziki, haien habi, zulo eta ugalketarako, negupasarako, atsedenerako edo elikatzeke guneena.
- b) Landareen kasuan, suntsitu, atalen bat moztu, osorik moztu edo errotik atera helburua duten eta haien habitataren suntsipenera daraman baimenik gabeko edozein jarduera.
- c) Kasu bietan, "galtzeko arriskuan" edo "zaugarria" kategorietan sailkaturik daudenean, debekatuta egongo da horien jabe izatea, bertakotzea, garraiatzea, saltzea, erakustea, ale biziak ala hilak inportatzea edo esportatzea -landareen propaguloak eta zatiak barne-, eta haien haziak, polena edo esporak biltzea, araudiak ezarritako kasuetan salbu.

Plan Berezian basa landare espezieak babesteak hurrengoa dakar:

- a) Basa florako aleak suntsitu eta kaltetzeko debekua, arauketa espezifikoak edo hurrengo artikuluan xedatutakoa salbu.
- b) Dagokion administrazio-baimenik gabe inolako zuhaitzik mozteko debekua, baso-aprobetxamenduei buruzko Mendien Foru Aginduan xedatutakoren kalterik gabe.
- c) Katalogatutako landareen eta haien habitaten andeatzea sorraraz dezakeen edozein jarduera burutzeko debekua.

15. artikulua.- Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak

Tokian gauzatzen den nekazaritzako eta abeltzaintzako kudeaketak helburu hau izango du: dauden ustiapenei eustea, eremuko natura-balioen kontserbazioarekin bateragarri izanik.

Nekazaritzako jardueraren ondorioz sortzen diren edo sor daitezkeen ingurumenaren arazoei irtenbide ematen laguntzeko eta ingurunearekiko orekatuak dituen ekoizpen metodo jakinen mantentzea eta hobekuntza sustatzeko xedez, nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak ezarri ahal izango dira luraren kudeaketaren erantzule diren nekazaritza ekoizleekin edo/eta ekoizleen elkarteekin eta horiek diruz lagundu ahal izango dira⁵.

Habitat-mota jakin baten kontserbazioa nekazaritza tradizionalari eustearen baitan baldin badago, erabilera hori sustatuko da. Horretarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen-kontratuak egingo dira, nekazaritzako eta ingurumeneko neurriak aplikatzeko⁶.

Lursailen artean landaredi-heskai autoktonoen sarea edukitzea sustatuko da. Horretarako, EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programaren baitan heskaien kontserbaziorako ezarritako laguntzak sustatuko dira (*VII 4. neurria. Paisaia hobetzea, heskaien bidez*⁷); neurri horretan ezarritako baldintza eta konpromiso berberak izango dira.

Sega-belardien kasu zehatzean (EB KOD. 6510 Batasunaren intereseko habitata), habitataren mantentzearekin bateragarriak diren nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilera tradizionalak sustatuko dira. Horretarako EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programan aurreikusten diren sega-belardien

⁵ 133/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzkoa.

⁶ 2007-2013 aldirako EAEko Landa Garapen Jasangarriko Programa.

⁷ 2007-2013 aldirako EAEko Landa Garapen Jasangarriko Programa. II. ardatza, Ingurumenaren eta landa ingurunearen hobekuntza. Nekazaritzako eta abeltzaintzako laguntzak.

kontserbazioari buruzko laguntzak sustatuko dira (*VI 1. neurria Intereseko sega-belardien kontserbazioa*), aipatu neurriaren inplementatzean zehazten diren baldintza eta konpromisoekin.

Ibaiertzarekin lotutako landaredi natural gehiago edukitzea sustatuko da; hortaz, Europar Batasunaren laguntzekin zerikusia duen lur-erretiroa ibai-lurraldearen eremuan egingo da, bereziki, eta batez ere, ILJPen zortasun-zona eratzen duen 6 metroko zerrendan eta JPHren babeserako 5 metroko zortasun-zonaren eremuan.

Beste ingurumen praktika batzuen artean, ongarri kimikoak eta landare-osasunerako produktuak ahalik eta gutxien erabiltzen dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak sustatuko dira. Biozidak eta substantzia kimikoak erabiltzen badira, zainduko da horiekiko bereziki sentiberak diren espezieak edo habitatak ez direla arriskuan jartzen.

Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodea aplikatu beharko da, abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuaren bidez onartu zena.

515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen aplikatu beharko da. Simaurren eta minden kudeaketari dagokionez, aipatu araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

Ibaiaren eta estuarioaren dinamika berreskuratzeko, eta itsasadarren, ibaien eta ingurunearen arteko lotura bultzatzeko, ibaiertzeko lubetak, babesak eta nekazaritza-eremuetako drainatze-sistemak kentzea sustatuko da, baldin eta inolako funtziorik betetzen ez badute, laborantza-jarduerarik ez dagoelako.

Abereentzako itxiturak jartzerakoan, fauna basatia batetik bestera ibiliko eta mugituko dela ziurtatzeko beharrezko baldintzak beteko dira, bai eta haiek hiltzea eragozteko baldintzak ere. Itxiturretan, ibilgu publikoaren muga banaketa -lerroarekiko 5 metroko gutxieneko erretiroa errespetatuko da, eta halakorik ez balego, ezpondaren gainaldearekiko.

Organo eskumendunak zainduko du ez direla egiten edo baimentzen lubeten edo betelanen bidezko babes-lanak, baldin eta ibilguaren zeharkako jarraitutasuna eragozten edo oztopatzen badute. Higadurak eragozteko, jabari pribatuak jaustea eragozteko edo azpiegituri eusten dieten lurrak jaustea eragozteko egiten badira babes-lanak, ez da lurzorua goratuko, ez eta ibai-dinamika aldatuko ere, eta teknikoki ahal den guztietan, ingeniariaritza naturalistikoko teknika bigunen bidez diseinatuko dira lanak. Nolanahi ere, ezinbestez ebaluatu behar da aurretik zer ondorio eragingo dituzten jarduera horiek tokiko kontserbazio-helburuetan.

Baratzei loturiko eraikinei dagokienez, indarrean den Zumaiako plangintzako Hirigintza Arauetako *Baratzei lotutako eraikinak, txabolak 149*. artikulua ezartzen duenari jarraituko zaio.

“Gutxienez 800 m²-ko azalera izan eta lantzen diren baratzetan, txabola bat eraiki ahal izango da lanabesak gordetzeko. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- *Paisaiari gutxien eragiten dion partzelako lekuan kokatuko dira.*
- *Azalera behar den moduan justifikatu beharko da, eta 6 m² izango du gehienez ere.*
- *Gehienezko altuera lurretik estalkiko elementurik garaienara 2,50 m-koa izango da, eraikinak lurra ukitzen duen puntu guztietan neurtuta.*
- *Eraikinaren edozein puntutatik partzelako mugarako distantzia bost metrokoa izango da (5 m), eta 10 metrokoa bide publikoetara eta ur ibilguetara.*

- *Eraikina behin-behinekoa izango da eta ez du zimendurik edukiko.*
- *Barruan ezingo di eletrizitaterik, iturriko urik ezta urak husteko inolako instalaziorik eduki; halaber, ezingo du barruan banaketarik izan.*
- *Txabolaren batean oiloak, hegaztiak edo antzekorik hazi nahi badira, edo txakurrak gorde, txabolaren kokapenak eta baldintzek abere erabilerari buruz ezarritakoa bete beharko dute.*
- *Txabola bat eraikitzeke lizentzia bi urterako emango da gehienez ere. Epe hori igarota, lizentzia berritu egin beharko da. Lizentzian, erabiliko diren materialen ezaugarriak eta kolorea ezarri ahalko ditu Udalak, baita eraikuntzaren estetikari eta paisaiari buruzko beste neurri batzuk ere.*
- *Lizentzia partzelaren ajbeak eskatu beharko du, eta honako hauek aurkeztu beharko dit: jabetzaren eskrituraren forokopia bat, partzelaren kokapen plano (1/500 eskala) eta partzelaren plano (1/1.000 eskala, gutxienez); planoan txabolaren kokapena adieraziko da.*
- *Titular batek bi edo partzela gehiago lantzen baditu inguru edo auzo berean, txabola bat bakarrik eraiki ahal izango du.*
- *Partzela mugakideetako bi txabola elkartu daitezke, guztizko okupazioa 12 metro baino handiagoa ez bada.*
- *Orain dauden mota horretako eraikinek Udalaren lizentziarik ez badute, urtebeteko epea dute arau hauek onartzen direnetik beren egoera legeztatzeke eta ordenantza hauei egokitzeke. Hori egin ezean, ordenazioz kanpoo egongo dira, eta Udalak bota ahal izango ditu jabearen kontura.*
- *Partzelak 500 m² baino azalera gutxiagoko baratzak badu, ezingo da eraikinerik egin; hala ere, kutxatza edo antzeko elementuren bat instalatu daiteke erabilera bererako eta 2,50 x 0,75 x 0,75 metroko neurriak izango ditu".*

Negutegien instalazioari dagokionez, indarrean den Zumaiako plangintzako Hirigintza Arauetako Nekazaritza unitate behartuak. *Negutegiak.* 150. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

- *10 metroko tartea egon beharko du negutegitik mugetara eta bide publikoetara, eta 20 metrokoa ur ibilguetara.*
- *Kasu guztietan, Udalak beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak ezar ditzake, paisaia inpaktu kaltegarriak ez gertatzeko.*

16. artikulua.- Basogintza erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak

Basogintzako erabilerak eta jarduerak baso-lurren kudeaketa iraunkorreko irizpideak aplikatuta garatuko dira; hortaz, basogintza-plangintza beste bitarteko bat izango da eremuko natura-balioak kontserbatzeko, eta basogintzako baliabideen ustiapena eta balio horien kontserbazioa bateragarriak izateko. Izan ere, hala, tokian dauden baso-masa autoktonoen kontserbazioa eta bilakaera naturala bultzatuko da.

Organo eskudunari (baso-administrazioa) eskaera luzatuko zaio 'Herri-onurako Mendi' izenda ditzan 'Babes Berezi Zorrotzeko' eta 'Babes Berezi Bateragarriko' eremuetan dauden mendi publikoak, izan ere, Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritako eskakizunetako hainbat betetzen baitituzte.

- Higadura prozesuen aurrean lurzorua babesteko beharrezkoak dira.
- Dibertsitate biologikoa zaintzen laguntzen dute, sistema ekologikoen bitartez, landareak eta animaliak babestuz edo dibertsitate genetikoak zainduz.
- Babestutako espazio naturalen edo beste legezko babes figura batzuen parte dira edo horiek eratzen dituzte.
- Paisaiaren elementu garrantzitsuak dira.

Era berean, Organo eskudunari (baso-administrazioa) eskaera luzatuko zaio ‘Mendi Babesgarri’ izenda ditzan ‘Babes Berezi Zorrotzeko’ eta ‘Babes Berezi Bateragarriko’ eremuetan dauden mendi pribatuak, aurreko kasuan bezala, aipatu 10. artikuluan ezarritako eskakizunetako hainbat betetzen baitituzte ere.

Plan Bereziaren esparruan dauden mendien antolaketa proiektuek jarraian azalduko diren irizpideak hartuko dituzte baitan:

- a) Jasangarritasun eta natura-ingurunearen kontserbazio irizpideak bere baitan hartuko dituen baso-kudeaketa sustatzea, eta dauden baso-masa autoktonoen mantentzea eta bilakaera naturala bultzatzea.
- b) Baso-masak tokiko espeziez eraturiko mendi gisa berreskuratzea sustatuko da, horretarako dagokion lekuko berariazko landaredi serieak lehenetsiz.
- c) Ale zaharrak errespetatzea eta kontserbatzea, oso ahul daudenak edo hilda daudenak barne, honako aleak izan ezik: pertsonentzat edo ondasunentzat arriskutsuak izan daitezkeenak edo ibilguaren ahalmen hidraulikoa oztopa dezaketenak, zubiak daudelako edo traba ditzaketen beste elementu batzuk daudelako, ur-goraldien ondorioa handiagoa egin dezaketelako.
- d) Egur hila egon dadin sustatzea, lurrian zein zutik, gutxienez 20 m³/ha-ko azalera osatzeko adina. Horretarako, baso-lanak egin ondoren bertan utziko da egur hila, baina pilaketarik sortu gabe. Lehendik dauden egur hilen hondakinak bere horretan utziko dira
- e) Zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak eta laguntzaileak begiratu egikaritzen diren lanetan.
- f) Masen arteko jarraitutasunari bide eman, baita horiek eta ibaiaren artekoari ere.
- g) Basogintzako eginkizunen egutegia bertan dauden fauna espezieetara egokitzea; hortaz, basogintzako lanak ez dira gauzatuko Batasunaren intereseko fauna-espezieak eta, oro har, eskualdearen interesekoak egoera ahulenean dauden denboraldian.
- h) Ibai-sarean solido esekien, fitosanitarioen eta pestiziden ekarpenak minimizatu. Horretarako, behar adina neurri ezarriko dira, solido esekiz betetako isurketa-ura ez dadin lurrazaleko uretara iritsi.
- i) Ahalik eta baso-pista gutxien eraikitzea eragiten duten metodoak sustatuko dira egurra lortzeko, Batasunaren intereseko habitatak edo/eta espezieen presentzia duten eremuen sargarritasuna eta zatikatzeko mugatzeko xedeaz.

Esparruko baso-plangintzako proiektuak eremuan eragin ditzaketen efektuen ebaluazio egokiaren xede izan beharko dute, 4/2007 Legearen 45. artikuluen arabera.

Urpean gera daitezkeen zonetako landaketen kasu zehatzean, ibarbasoaren berrezartzea bultzatuko da, urpean gera daitezkeen itzulera-aldi motzeko (10 urte) lurzoruak okupatzen dituzten lurzatietan, behinik behin.

Debekatuta daude, oro har, landaredi erriparioa edo ibarren ingurunean interes ekologikoa duten aleak guztiz edo zati batean desagertzea dakarten jarduketak. Ingurune horretatik hurbil gauzatzen diren baso-aprobetxamenduek intereseko habitat eta espezieen iraunkortasuna eta kontserbazioa bermatu beharko dute, baita uren kalitateari eragiten saihestu ere.

Debekatuta daude, oro har, baso autoktonoaren mozketak dakarten jarduketak, arloko administrazio eskumendunaren berariazko baimen kasuan salbu, zeinak kontserbazio xede diren elementuen gaineko ondoreak ebaluatuko baititu.

Debekatuta daude, oro har, baso-soilketak eta Batasunaren intereseko habitat zuhaiztuetan, eta, hedaduraz, dauden baso autoktono guztietan, erabilera aldatzea.

Baso-aprobetxamenduetan, gutxienez, Jabari Publiko Hidraulikoari eta Itsaso eta Lehorren arteko Jabari Publikoari eta beren Babeseko Zorguneei dagokien lur zerrenda lanetatik babestuko da. Zona horretan ez da zuhaitz espezie aloktonoen landaketa eta laborantzarik egingo eta landare-formazio naturak kontserbatu eta hobetzeko jarduketak sustatuko dira. Landaketek lurzoruan harrotze-lanak egitea saihestuko dute zona horietan.

Debekatuta dago landaketa berriak egitea baso-espezie aloktonoekin, Plan Berezia indarrean sartzen den unean, beste erabilera bat duten lurretan, bereziki, naturalizatzeko eta ugaritzeko ahalmena duten espezie inbaditzaileen kasuan, sasiakaziarenean (*Robinia pseudoacacia*), adibidez.

Ingurumen-balioekin bateragarria den baso-kudeaketa sustatzeko ezar litezkeen beste laguntza batzuen kalterik gabe, EAEko Landa Garapen Iraunkorreko Programan (2007-2013) aurreikusten diren laguntzak sustatuko dira, bereziki, baso-ingurunearen aldeko neurriak, zeintzuen helburuen artean EAEn Natura 2000 Sarea eratzen duten habitat eta espezieen kontserbazioan eta berreskuratzean laguntzekoa azpimarratzen baita. Neurri horiek, halaber, baso-lurren kudeaketa jasangarrira bideratutako lau jarduketa mota biltzen dituzte:

- I. Zuhaitz autoktonoz eraturiko zuhaiztien kontserbazioa eta berrezartzea
- II. Txanda motzeko espezie jakinekin egiten den basoberritzearen mugaketa
- III. Mendien kudeaketan eta aprobetxamenduan inpaktu txikiko tekniken erabilera eta
- IV. ur-ertzeko ibarbaso-landarediaren kontserbazioa eta berreskuratzea.

17. artikulua.- Ehizako erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak:

Ehizaren arauketak bateragarria izan behar du esparruan diren espezieen kontserbazio helburuekin. Indarrean den ehizari buruzko araudiaren eta hortik eratorritako mugaketen arabera, ur publikoak, haien uberkak eta ertzak barne, Segurtasun Zonak dira, eta ur-masak, haien alboko eremuak barne, Faunaren Babesleku dira, espresuki izendatu beharrik gabe (2/2011 Legea, otsailaren 12koa, Ehizarena).

Arloan eskumenduna den organoari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura-ingurune Zuzendaritzari, eskaera luzatzen zaio Plan Bereziaaren esparru guztia ehiza-xedeetarako 'Faunaren babesleku' izendatutako eremu batean sar dezan, arrazoi biologikoak eta zientifikoak (esparruaren garrantzia hegazti-faunarentzako) eta aisialdi eta jolaseko erabilera intentsoa ikusirik (segurtasuna).

Debekatuta dago natura-ingurunean ehizarako espezieetako aleak aske uztea, hala aloktonoak nola autoktonoak, baldin eta kontserbazio-xede diren espezieentzako mehatxu-faktorea izan badaitezke.

18. artikulua.- Arrantzako erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak.

Debekatuta dago arrain-espezieak askatzea edo horiekin birpopulatzea, hala ekimen publiko nola pribatuaren kasuan, baldin eta kontserbazio-xede diren espezieentzako mehatxu-faktorea izan

badaitezke, kontserbazio-xede diren espezieen kudeaketariko loturikoak izan ezik (izokina edo Batasunaren intereseko beste espezie batzuk berriro sartzeko plana, kasuan kasu).

Debekatuta dago, era berean izokinaren arrantza (*Salmo salar*) haren populazioek kontserbazio egoera ona erdiesten ez duten artean, esparruan proposatutako kontserbazio helburuen arabera.

Aingiraren arrantzari dagokionean, aingiraren arrantzari buruzko, otsailaren 18ko, 41/2003 Dekretuak (maiatzaren 10eko 107/2005 Dekretuak aldatutakoa) xedatzen duenari, baita EAEko Aingira europarra berreskuratzeko Kudeaketa Planak (2010eko ekaina) eta haren hurrenez hurrengo eguneraketek ezarritakoari jarraituko zaio.

19. artikulua.- Azpiegituretako erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak:

Irizpide orokor gisa, eragotzi egingo da Plan Bereziaren eremuaren baitan azpiegitura berriak eraikitzea; eta, horretarako, gune horietatik kanpo dauden beste toki batzuk edo beste trazadura-aukera batzuk aztertuko dira.

Horrez gain, zerbitzu-instalazioak oro har kentzea sustatuko da, lurpekoak zein airekoak, eta, bereziki, linea elektrikoak, saneamendukoak eta hornidurakoak eta antzeko gainerakoak. Hortaz, ahal dela, gune horietatik kanpo berregingo dira, salbu eta instalazio horiek kentzeak kalte handiagoa eragiten badu bertan uzteak baino.

Azpiegitura eta hoditeria linealak diseinatzerakoan, irizpide hau aplikatuko da: lehendik dauden azpiegiturei egokitzea trazadura.

Linea elektrikoak instalatu behar direnean, eragotzi egingo da esparruan oinarriak jartzea, eta horren orde, lurpean edo lehendik dauden errepideen, bideen edo ibilbideen trazaduretan jar daitezen sustatuko da, teknikoki bideragarria bada. Nolanahi ere, talken eta elektrokuzioen aurkako gailuak jarriko dira instalazio horietan, hegaztiak hil ez daitezen.

Ertzak babesteko eta ezpondak egonkortzeko egiturak beharrezkoak baldin badira, ahalik eta teknikarik onena erabiliko da, eta ahal dela eragotzi egingo dira konponbide “gogorrak”, hormigoizko harresien edo harri-lubeten modukoak, salbu eta horiek badira teknikoki egokienak. Egitura horiek ingurunean integratuko dira, eta horretarako, lehentasuna izango dute bioingeniaritza edo ingeniaritza naturalistikoko teknikek. Harri-lubetaren tarteko hutsuneak landare-lurrarekin betetzea xedatuko da, bai eta zuhaitz-, zuhaixka-eta belar-landaredi autoktonoa edo basatitutakoa jartzea ere, landaketen edo aldaxken bidez. Jarduketa horiek gauzatzean babestu beharreko elementuen eskakizun ekologikoak hartuko dira kontuan.

Esparru barrutik nahitaez iragan behar duten lur azpiko linealei dagokienez (kolektoreak, ur-hodiak, gasbideak, komunikazio-sareak, linea elektrikoak, etab.) lehendik dauden azpiegituretan jarriko dira, eta hala egitea ezinezkoa baldin bada, erretiro hauek errespetatu behar dituzte, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoak:

- Landa-esparrua: 5 m, gaur egun dagoen tokiko bide baten azpitik bideratzen direnean izan ezik.
- Hiri-eremuak: ahal dela, hodiak tokiko bideen edo espaloien azpian edo kanalizazioen barnealdean instalatuko dira.

Ez da baimenduko, behar bezala justifikatutako eta ebaluatutako kasu berezietan izan ezik, landa-eremuan kanalizazioak egitea azpiegitura linealak jartzeko. Azpiegiturak ezartzean, berariazko azterketa batean ebaluatutako ezintasunik ezean, interes naturaleko elementuak eta erriberako landaredia kontserbatu behar dira, eta haien diseinuaren bidez, jada desagertu den lekuetan landaredia lehenera ekartzea bultzatuko da.

Gurutzatze-arazoei konponbidea eman behar zaienean, ez da aldaketarik egingo ibilguan eta erriberetan, eta lehendik dauden igarobideen azpiegiturak erabiliko dira (zubiak, bideak...), eta horretarako aukerarik ez badago, eskuragarri dagoen teknikarik onena erabiliko da; hau da, toki horretan kontserbatu beharreko elementuetan eragina minimizatze aldera teknikarik eraginkorrena eta aurreratuenena dena, bideragarriak diren ekonomia-eta teknika-baldintzak errespetatuta, kostuak eta onurak kontuan hartuta eta zer egoera dagoen kontuan hartuta.

Zubiak, zubibideak eta, oro har, bideetako azpiegituren gurutzatzeak eraiki behar direnean, haiek diseinatzen direnean, estribuek eta habeek ez dute eragingo ibai-ibilguetan, eta ertzetan azpiegiturarik gabeko eremu libre bat utzi behar da, ibaiertzetako landaredia lehenera ekarri ahal izateko eta erriberetako ekosistemekin zerikusia duten fauna-espezieen joan-etorria errazteko.

Eraikuntza berriko azpiegiturretan, bai eta ibai-ingurunearekin zerikusia duten kultura-ondareko elementuetatik edo ibilguetatik hurbil egiturak eraiki behar badira edo azpiegiturak edo eraikuntzak berritzeko (zubiak) lanak egin behar badira, kontuan izango dira kontserbatu beharreko fauna espezieen eskakizun ekologikoak, ezin bada baztertu proiektua garatuko den eremuan espezie horiek izan daitezkeenik.

Ibai-ingurunean garatu beharreko lanak egiteko datari dagokienez, kontserbatu beharreko fauna-espezieen umatze-garaiak errespetatuko dira, ezin bada baztertu proiektua garatuko den eremuan espezie horiek izan daitezkeenik.

Oinezkoentzako eta bizikletaz ibiltzeko bideak lehendik dauden azpiegiturretan egingo dira. Nolanahi ere, Jabari Publiko Hidraulikoaren eta Itsaso eta Lehorren arteko Jabari Publikoaren Bide-Zortasunetik kanpo iragan behar dute, baldin eta ez bada hiri-lurzoru finkatua; halakoetan, aipatutako bide horiek, ahal denean, ibilguaren ezpondaren gainaldetik ahalik eta urrutien igaroko dira.

20. artikulua.- Aisialdiko jardueri dagozkien jarraibide eta araubideak:

Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 46. artikulua honako hau seinalatzen du:

“1. Aginpidedun organoaren erabakiz, arauak ezar daitezke natura-ingurunean egin eta landareei eta faunako espezieen populazioen ohizko garapenari eragin diezaioketen edo horien habitatak aldarazi ditzaketen aisialdiko jarduerak arautzeko. Arau horiek orotarako izan daitezke, edota Euskal Autonomi Elkarre barruan kalteberarentzat hartzen diren lurralde nahiz itsasaldeentzako bakarrik”

Bereziki, eta aurreko atalean ohartarazitako xedeetarako, populazio horien eta beren habitataren ohizko garapenari Plan Bereziaren esparruan eragin diezaioketen jardueratzat honako hauek hartuko dira:

- a) Jarduera motordunak, eskia edo uretako motoaren praktika barne.
- b) Inguru librean kanpatzea.

c) Haitz-inguruetan egindako jarduerak. Esaterako, eskalada, delta hegala, parapentea ahiz mendi-txirrindua edo antzekoak.

d) Inguru hezetsuetan egindako jarduerak. Esaterako, egonaldia, bainualdia nahiz nabigazioa edo antzekoak.

e) Oro har, hotsa ateratzen duten tresnez edo basoetako bideez baliatuz egindako jarduerak.

Debekatuta egongo dira landan zehar egiten diren jarduera motordunak, horretarako bereziki prestatuta dauden eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuko baimena duten ibilbideetan salbu.

Zeharkaldiaren praktika pista, landa bide eta lehendik bazeuden bidezidorretatik egingo da. Esparruko hainbat zona lotzeko bidexka berriak ireki edo egokitzea beharrezkoa den eremuetan, jada bazeuden bidezidorrak hobetzea lehenetsiko da sastraka kentze, bidexken balizatzeko eta, paseatzaileen segurtasuna handitzeko zein begiratokiak eta behaketa puntuak sortzeko, paisaia integratutako jarduketa bigun eta arretatsuen bitartez.

Herritarren sarbideari buruzko arauketan eta ibilbideen sarea definitzerakoan zonarik sentiberenak ekidingo dira, esaterako, hauskortasun handieneko habitatako edo hegaztien umatze-eremuak eta babeslekuak.

21. artikulua.- Begiratokiei eta behaketa puntuak dagozkien jarraibide eta araubideak:

Begiratokiak eta behaketa puntuak honako xede honekin planifikatuko dira: herritarra espazioaren babesera eta kontserbaziora hurbildu eta horren partaide bihurtu, natur, paisaia- edo kultur balioen inguruko informazioaren eta jendarteratzearen bitartez.

Instalazioak material naturalekin eraikiko dira, egurra gehienbat, tipologia estandarizatua izango dute, kokapen bakoitzari egokitutakoa, eta paisaia-integrazio irizpidea oinarri diseinatuko dira. Espazioaren balio naturalei, toponimiari eta abarrei buruzko informazio panelez (espezieak, habitata) lagunduko dira; panelak bertikalak (sarrera puntuak) edo makurtuak (erdibideko puntuak) izango dira.

Begiratokiek eta behaketa puntuak zonarik sentiberenak ekidingo dituzte, esaterako, hauskortasun handieneko habitatako edo hegaztien umatze-eremuak eta babeslekuak.

22. artikulua.- Nabigazioko erabilerari dagozkion jarraibideak eta araubideak:

Portuko eremuan, nabigazioa Portualdeko Agintaritzak ezarritako portuko zerbitzu eta polizia araudian⁸ xedatutakoak, edo etorkizuneko EAEko Portuen Legean zehaztutakoak, aginduko du.

Portuko eremuko nabigazio-ubidean dagoen nabigazio-abiaduraren 3 korapiloko mugaketa ubidearen multzo osora zabalduko da, Plan Bereziaren esparru guztian. Mota horretako ontzien nabigazioa ubideko kanal nagusitik gauzatuko da eta erabilera horretarako bigarren mailako kanalak eta babes berezi zorrotzeko zonak baztertuko dira.

⁸ Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Motorrik gabeko ontziak ubide nagusitik nabigatuko dute gehien bat. Babes berezi zorrotzeko zonetatik (Santixoko padura, Usurbiribillagako uharteak, Basazpia) nabigatzeko beharrezkoa izango da Udalaren berariazko baimena.

Urolaren itsasadarraren barruan taldeentzako jarduerak antolatzeko, kirolekoak edo/eta aisialdikoak, beharrezkoa izango da Udalaren berariazko baimena edo, kasua bada, administrazio eskumendunarena.

23. artikulua.- Amarralekuetako erabilerari buruzko jarraibide eta araubideak:

Ezingo da ontzien amarratzeko instalazio berririk eraiki agintaritza eskumendunaren baimenik gabe (Portuen Zuzendaritzak portuko eremuan, Kosta Lurralde Zerbitzua gainerako uberkan).

Plan Berezitik komenigarritzat jotzen da ontziak amarratzea onartzen den eremuak mugatzea. Hartara, eskakizuna luzatzen zaio agintaritza eskumendunari, Portuko Agintaritzari eta Kosta Lurralde Zerbitzuari, amarratze instalazioak muga ditzan honako zona hauetan (guztiak itsasadarraren ezker aldean):

- Portuko eremua: merkataritza- eta arrantza portuak.
- Portuko eremua: Parkea. Urolaren moila (Gernika parkea).
- 10-SO Urolaren itsasadarra: Zubiberriatik trenbidearen zubiraino.

Plan Berezitik komenigarritzat jotzen da ere dauden ontziralekuak edo amarralekuak zaharberritzea, horiek, progresiboki, modelo estandarizatu batez ordeztuz, zeina egurrezkoa edo beste material batekoa izan daitekeen; horren diseinua erabiltzaileek beraiek ados lezakete, amarraleku tradizionalei buruzko alde zuzeneko dokumentatzearen ondoren. Nolanahi ere, egoera txarrean daudenak kendu beharko lirateke, bertan behera utzirik egotearen itxura duten ontziekin batera.

24. artikulua.- Ibilgailu motordunen zirkulazioko erabilerari buruzko jarraibide eta araubideak:

Debekatuta dago motordun ibilgailuen zirkulazioa, asfaltozko edo hormigoizko oinarritzako bide-saretik kanpo. Behar bezala justifikatutako erabileretarako soilik baimenduko da ibilgailuen zirkulazioa sare horretatik kanpo; esaterako, erabilera hauetarako: basogintzarako, azpiegiturak instalatzeko eta haien mantentze-lanak egiteko, kudeaketa-lanetarako eta/edo ikerketak egiteko eta eremu horretan gertatzen diren larrialdietarako.

25. artikulua Aterakuntzako jarduerari buruzko jarraibide eta araubideak:

Plan Bereziaren eremuan ezin izango da inolako meatzaritzako ustiapenik gauzatu, ez aire zabalean ez lurpean. Horren ildo beretik, debekatuta dago ibilgutik legarra eta/edo hondarra ateratzea (Meatzeei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legean eta hura osatzeko arauetan araututa dago).

Dragatze-lanen egikaritza oro Portuei buruzko 48/2003 Legean (azaroaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) ezarritakoaren arabera burutu beharko da. Lege horrek ezartzen duenez, Portuko Agintaritzari berari dagokio portu barruan dragatzeko baimena ematea; horrek txosten bat eskatu beharko dio dagokion Itsas Kapitaintzari eta, balio arkeologikodun eremua baldin bada, Arkeologian eskumenduna den Agintaritzari.

Dragatze-lanek 'EAEko 2011-2014 Dragatze Planaren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazio Azterketa' (IIBE) delakoan ezarritako zehaztapenak bete beharko dituzte, eta, zehazki, 'Zumaiako portuan dragatze-materialen kudeaketa' (Azti-Tecnalia, 2011) agiriarenak, zeinaren baitan 5. *Ingurumen inpaktua eta jarraipen proposamena* kapitulua baitago, jarduketa horri egokitua. Nolanahi ere, dragatze-lanak bainatzeko sasotik kanpo egingo dira (ekainetik irailera), garairik egokien gisa udaberria jotzen dela (martxotik maiatzera). Aurrerantzean hurrengo aldietan onartuko diren Dragatze Planen azterketen eta jarraipenen zehaztapenak aplikatuko dira.

26. artikulua.- Ubidean gauzatzen diren jarduerak eta uraren erabilerari dagozkion jarraibide eta araubideak:

Debekatuta dago ibilguko edo estuarioko eta herri-jabariaren babeserako zortasun-zonetako morfologia aldatzea eragingo duen jarduera oro, kanalizazioak, dragatze-lanak eta betelanak barne, arlo horretan eskumena duen administrazioak baimena ematen duen kasu berezietan izan ezik; nolanahi ere, kontserbatu beharreko elementuetan kalte nabarmenik ez dela eragingo ziurtatu behar da aurretik.

Lortutako lohiak eta hondakinak isurpenei buruzko arauetan xedatutakoaren mende egongo dira (Zumaiako Arau Subsidiarioetako 198- 200 artikulua).

Ibaietako ertzak garbitzeko lanei dagokienez, belar-sastrakak garbitzeko eta/edo belar-hondakinak kentzeko, eroritako zuhaitzak kentzeko eta antzeko lanetarako, alor horretan eskumena duen administrazioak berariazko baimena eman behar du; administrazio horrek, lan horiek kontserbatu beharreko elementuetan zer ondorio eragingo duten baloratzeko, irizpide hauek erabiliko ditu:

- Ibarbasoko ekologia-egoeran eragindako ondorioa.
- Ibilguaren ahalmen hidraulikoa oztopatzeko arriskua, zubiak daudelako edo, hondakinak pilatuta dauden lekutik behera, buxatu egin daitezkeen beste elementu batzuk daudelako.
- Uholdeen edo ezponda-zulatzeeen ondorioz kaltetu daitezkeen jabetzak (eraikuntzak, etxebizitzak) edo azpiegiturak (errepideak) dauden.
- Mehatxupean dauden espezieei eragindako ondorioa; jarduerak gauzatzeko garaiak.

Zaindu egingo da Plan Bereziaren esparruan ura ustiatzeko emakida-eskubideak dituzten instalazioek beti abian dituztela kontrol eraginkorra egiteko sistemak; hain zuzen, hauek kontrolatzeko: erabilitako ur-bolumena, aipatutako herri-jabari hidraulikora itzultitako ura eta egindako isurketak. Horrez gain, emakidarekin zerikusia duten instalazio guztiak beti garbi eta baldintza egokietan eduki behar dira, eta, bereziki, arrainak igarotzeko gailuak (arrapalak, eskalak...), saretak, etab.; hortaz, ziurtatu egin behar da instalazioak behar bezala dabiltzala une oro arrain-espezieen joan-etorriak bultzatzen direla, gora zein behera egiterakoan.

Plan Bereziaren esparruan, irailaren 10eko ARM/2656/2008 AGINDUA aplikatuko da, plangintza hidrologikoaren jarraibidea onartzen duena. Horrenbestez, Natura 2000 Sareko eremu babestuetan emari ekologikoen erregimenek ondorio nabarmenak eragiten badituzte, erregimenak egokitu egingo dira, habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera onari eusteko edo haiek lehenera ekartzeko, eta horretarako, baldintza ekologikoak bete behar dira eta haien baitako funtzio ekologikoei epe luzera eutsi behar zaie.

Urolaren itsasadarra, ibai KBE gisa, emarien erregimena ezartzeko lehentasunezko esparrutzat jotzen da, hartara, 2018. urtea baino lehen, emari horiek aplikatzen direla ziurtatu behar da, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan xedatutako ebaluazio-aldia amaitzen baita.

Debekatuta dago emaria desbideratzea ura metatzeko, baldin eta metatzeak ibaiaren gutxieneko emaria egokitzen zehaztutako emari ekologikoa baino txikiagoa izatea badakar.

27. artikulua.- Hiri-hondartzako zerbitzurako ekipamenduei dagozkien jarraibide eta araubideak:

Eraikuntza-proiektuak behin betiko lerrokadurak definituko ditu, beti ere 1.01 azpierrekuaren baitan. Urbanizazio-proiektua aldatu ahal izango da, 2. SO- Santxoren garapenerako Plan Bereziaren 2.5 Planoan ezarri ziren lerrokaduraren edo sestraren batek hala beharko balu.

Eraikinen diseinua urbanizazio- eta eraikuntza-prozesuaren egilearen eskumena izango da eta arau hauetara zein Plan Bereziaren agirietan ezarritako irizpideetara egokitu beharko da.

Eraikinen bolumetria eta forma natura-ingurunera egokituko dira: gutxieneko distantzia mantenduko dute 'Maia' harkaitz azaleratzearekiko, haren "ikonozko" silueta begiratzuz; eraikinek hurreratze ikusizkoak apurtzea saihestuko da, perspetiben "itzal"-eremuetan kokatuz; ekipamenduen taxutzea eta estalkiak zaindiko dira, "hondakin" izaera ekidite aldera.

28. artikulua.- Ondarearen elementuei buruzko jarraibide eta araubideak:

Katalogaturiko ondarearen babesari dagokionean Zumaia-ko Arau Subsidiarioetako [Hirigintza arauak] 4.3 *Interes historiko, artistiko eta naturalistiko* duen gisa katalogatutako ondarea babesteko arauak kapituluaren (175-180 artikulua) eta Zestoako Arau Subsidiarioetako *Ondare historiko-artistikoaren babesa / Interes kulturala eta naturalistikoa duen ondarearen katalogoa* V. TITULUAN (197- 200 artikulua) ezarritako zehaztapenak jarraituko dira.

29. artikulua.- Kutsatutako lurzoruei buruzko jarraibide eta araubideak:

Aztertutako eremuan lurzorua polui dezaketen jardueraren bat egin bada noizbait (*Lurzorua ez poluitzeko eta poluitutakoa garbitzeko 1/2005 Legean edo Lurzorua polui dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoruak poluituta daudela deklaratzeko irizpideak eta arauak ezartzen dituen 9/2005 Errege Dekretuaren eranskinetan aipatzen direnak*), inbentarioan sartu beharko da, eta inbentarioan sartuta egon balitz izango lituzkeen eragin berberak izango ditu.

Era berean, lurrak mugitu eta poluzio-zantzuak aurkituz gero, [Eusko Jaurlaritzak] Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi behar zaio, *Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen* 10. Artikuluak agintzen duenez.

VI TITULUA: INDARGETZE-EREMUETAKO ERABILERA ARAUAK.

30. artikulua.- Indargetze-eremuak

Ordenaturiko esparruetako espazio periferiko batzuk identifikatu dira, non jarduera arauak ezartzea beharrezkotzat hartu den, izan ere, Plan Bereziak ordenaturiko esparruan eragina dute edota izan dezaketen zenbait erabilera edo jarduera aurrera eramaten baitira

Antolatutako eremuan hainbat gune periferikoarekiko hauteman dira. Beharrezkotzat jo da horietan jarduera jarraibide ezartzea, bertan egiten diren erabilera eta jarduera batzuk Plan Bereziak antolatutako eremuan eragina baitute edo izan baitezakete.

Indargetze-eremuak deituriko atalean sartu dira eta ondorengo zonek eratzen dituzte:

- Zuloagako lursaila: duna-sisteman kokatua, Zumaiaiko udal plangintzan 'Babes bereziko' gunea da.
- Karakaseko erriberako eremua: Hezeguneen LAPEk antolatutako gunea da eta hala LAP horrek nola Zumaiaiko hiri plangintza orokorrak 'Nekazaritza, abeltzaintza eta Landazabal' kategorian sailkatzen dute.
- Flores-mendiko ipar mendi-hegala: aurreko gunearen ondoan dago eta Karakasekoerribera eta Artadi 'Babes bereziko' eremuak lotzen ditu. Zumaiaiko udal plangintzan 'Babes bereziko' gunea da.
- Sanmigelmendiko gune garaia: Sanmigelbaso ondoko gunea da, haren kokapen garaia dela eta, ikusizko hauskortasun handikoa. Zumaiaiko udal plangintzan 'Babes bereziko' guneak, tontorrek' kategorian sailkatu da.
- Urola eskuineko ertzeko baso naturalak, Dornutegitik Errotagaineraino. Ibarreraino jaisten diren aldapa malkartsuko eta baso naturalez estalitako mendi-hegalak dira. Zumaiaiko udal plangintzan 'Babes bereziko' guneak dira.

31. artikulua.- Indargetze-eremuei dagozkien jarraibideak:

Zona hauen klasifikazioa eta kalifikazioa lurzoru urbanizaezina eta babes bereziko eremu gisa mantentzea zainduko da, edo Karakaseko erriberaren kasuan, 'Nekazaritza, abeltzaintza eta Landazabal' moduan, Zumaiaiko udal hirigintza plangintzaren ondorengo berrikustetan.

Paisaia-kalitatea eta landa izaera aldatuko duten azpiegiturek edo elementuek eremu hauek okupatzea saihestuko da.

Zuloagako lursaileko lorategian espezie exotiko sarkinen presentzia antzemateko kontrola egingo da, azaroak 14ko 1628/2011 Errege Dekretuaren 10.9. artikuluan oinarrituz, zeinak espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako zerrenda eta katalogo erregulatzen duen honakoa zehaztuz: *"eskumena duten autoritateek lurren titularrei eskatu ahal izango diete eskumena duten autoritateen ordezkariak informazioa eta sarrera espezie exotiko sarkinen presentzia egiaztatzeko asmoz eta hala balitz, hauen kontrolerako neurriak har daitezten"*.

Floresko mendi, Sanbartolomebaso, Soburutz aldapa, Gaztaintxoeta, Meagako erreka eta Fabrikaldeako baso zonetan hostozabalen basoen mantenua eta zabaltzea erraztuko da.

VII TITULUA: HERRI-ONURAKO IZENDAPENA.

32. artikulua.- Herri-onura eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea

Espazio natural babestu baten izendatzeak, 2120004 Urolaren itsasadarra KBEn kasuan bezala, herri-onurako izendapena⁹ dakar aldi berean, ukitutako ondasunak eta eskubideen desjabetze xedeetarako, bai eta Autonomia Erkidegoaren lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak erabiltzeko, kostu handiko izaera duten *inter vivos* egindako egintza edo negozio juridikoei dagokienez, zeintzuk bere baitan kokaturiko ondasun higieizinei egokitzen zaizkien eskubideen errealean eraketa, igorpena, aldaketa edo iraungitzea dakarten.

VIII TITULUA: ZEHAPEN-ARAU BIDEA.

33. artikulua.- Administrazio-baimenaren eta udal lizentziaren beharra

Aplikagarria den araubidearen arabera udal lizentzia nahitaezkoa den kasuetan, administrazio-baimena ere nahitaezkoa izango da, arloko legeriak eragindako zonetan eta hala eskatzen denean.

34. artikulua.- Erantzukizuna

Plan Berezian jasotako ekintzek edo ez egiteek erantzukizun administratiboa sortuko dute, zigor bidetik edo bide zibiletik galdagarriak direnen eta bestelako administrazioek Plan Berezian dauzkaten eskumenen kalterik gabe.

Erantzukizun administratiboa galdagarria izango da azaroaren 26ko Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 legean ezarritako oinarrien eta erantzukizunaren arabera.

Honako zehapen-araubide hau arloko hirigintza legerian jasotakoaren kalterik gabe aplikatuko da.

35. artikulua.- Arau-hausteak.

1.- Hauste arintzat joko dira: 750 € arteko isunak.

a- Galarazitako lekuetan kanpatzea eta baimendu gabeko espazioak itzalkinak edo antzekoak jartzeko erabiltzea.

b- Galarazitako lekuetan zaratak egitea, argi egitea nahiz argi-zirtakoak egitea, eta edozein energia mota jaulkitzea: termikoa, dardarazkoa, elektromagnetikoa, infrasonikoa eta ultrasonikoa.

c- Ornogabeak, hondoak, basa fruituak, egurrak, goroldioa, likenak edota landare sendagarri eta usaintsuak jarduera horretarako araudia bete gabe biltzea.

d- Beita biltzea galarazitako zonatan arrantza egiteko.

⁹ Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

- e- Dunan zehar igarotzeko markatu eta egokitu diren bideetatik ateratzea, baldin eta administrazio-baimenik gabe egiten bada.
- f- Haitz-inguruetan egindako jarduerak. Esaterako, eskalada, delta hegala, parapentea nahiz mendi-txirrendua edo antzekoak, horretarako bereziki egokitutako zonetan izan ezik.
- g- Santixoko paduran egiten diren jarduerak. Esaterako, egonaldia, bainualdia nahiz nabigazioa edo antzekoak.
- h- Debekatuta egongo da galarazitako zonetatik nabigatzea eta zona nabigagarri guztietan ezingo da legeak ezarritako portuetan nabigatzeko abiadura gainditu (3 milia do korapilo orduko).
- i - Uretako eskia debekatuta egongo da Plan Berezi honen esparruan.
- j- Edozein fauna eta flora espezie salerosketarako biltzea.
- k- Deslai dabilzan txakurrek kalteak egitea eta mehatxatutako hegazti espezieak gogaitzea (dunan zuloak egitea, itxiturak apurtzea, paduretan dauden hegaztiak uxatzea...)
- h- Plan Bereziaren esparruko edozein zonatan sua erabiltzea, espresuki baimendutako baldintzetatik eta lekuetatik kanpo.
- i- Gai kimikoak edo substantzia biologikoak baimenik gabe erabiltzea, eta hondakinak bota edo isurtzea Plan Bereziaren esparruan.

2.- Hauste larritzat joko dira: 750 €-tik 1.500 €-ra arteko isunak.

- a- Hiru arau-hauste arin errepikatzea.
- b- Pertsonen nahiz ondasunen segurtasunari eragiten dioten jarduerak egitea, baldin eta debekatutako jarduerak badira edota administrazio-baimenik gabe egiten badira.
- c- Espezie mehatxatuen katalogoan dauden eta babes-mailaren bat duten espezieak kaltetu, gogaitu edo biltzea.
- d- Ehiza egitea hori debekatuta dagoen Plan Bereziaren esparruan¹⁰.
- e- Debekatuta egongo dira jarduera motordunak landan zehar egiten badira, Foru Aldundien Nekazaritza Departamentuen baimena duten bereziki egokitutako zirkuituetan izan ezik. Era berean, debekatuta egongo da, pistetatik kanpo, ibilgailu ororen zirkulazioa, mendietatik egurra ateratzeko lanetarako salbu.
- f- Natura-ingurunean espezieak sartzea, berriz sartzea edo populazioak indartzea, baldin eta administrazio-baimenik gabe egiten bada.
- g - Berreskuratze-zonetarako itxiturak, edota ingurumen-auzi justifikatuengatik eginiko beste aldi baterako itxitura batzuk, ez errespetatzea (mehatxatutako espeziaren batek habiak egitea, zonaren baten aldi baterako babesa...).

¹⁰ Ehiza-eremu berezia da.

h - Zona sentiberetan lurzoruaren higadura sorraraz dezaketen jarduerak (zaldiz, txirrinduz, motoz ibiltzea ... dunan, paduran...).

4.- Hauste oso larritzat joko dira: 1.500 €-tik 3.000 €-ra arteko isunak.

a- Hiru arau-hauste larri errepikatzea.

b- Animalia zein landareei dagokienez -landareen propaguloak eta hondarrak barne-, galtzeko arriskuan edo zaurgarri gisa sailkatuta badaude, baimenik gabe suntsitzea, hiltzea, biltzea, saltzea, salerosteko harrapatzea eta erakustea edo naturalizatzea.

c- Hiri-altzariak nahita apurtzea.

d- Galtzeko arriskuan dauden edo zaurgarriak diren espezieen habitatak suntsitzea, bereziki ugalketa, negualdi, atsedeen, bizitzeko edo elikadurarako guneak.

e- Habitaten suntsipen kasuetan Lurzoruaren Legea aplikatuko da.

f- Natura-inguruneen errealitate fisikoa eta biologikoa aldatzeko ekintzak baimen, lizentzia edota kontzesiorik gabe (zuhaitzak moztea, lurak mugitzea...).

g- Natura-inguruneen baldintzak, produktuak nahiz elementuak deuseztatu edota aldarazteko sua erabiltzea Plan Bereziaren esparruko edozein zonatan.

h- Plan Bereziaren esparruan, natura-inguruneen baldintzak, produktuak nahiz elementuak deuseztatu edota aldarazteko gai kimikoak, substantzia biologikoak baimenik gabe erabiltzea, eta hondakinak bota edo isurtzea.

2.Kapitulua HIRIGINTZA FITXAK

1. SANTIXO
2. BOKALEA
3. ARTADI
4. BEDUA
5. OIKIAKO ERRIBERAK
6. SOBURUTZALDEA